AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Oposizioak eta lehiaketak

HEZKUNTZA SAILA

4993

AGINDUA, 2026ko azaroaren 2koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren kidegoan sartzeko hautaketa-prozeduraren deialdia egiten baita.

Hezkuntza Sailak, bere eskumenen esparruan, kalitatezko enplegu publikoa bultzatu nahi du, eta euskal hezkuntza-sistemako irakasleei egonkortasun handiagoa eman. Uste osoa du egonkortasun horrek gure gazteen eta, oro har, gure herritarren prestakuntza eta hezkuntza hobetzen lagunduko duela.

Helburu hori betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren 2023., 2024. eta 2025. urteetarako lan-eskaintza publikoak Gobernu Kontseiluaren 2023ko abenduaren 19ko, 2024ko abenduaren 17ko eta 2025eko abenduaren 16ko erabakien bidez onartu ziren, eta 2023ko abenduaren 27ko EHAAn (245. zk.), 2024ko abenduaren 31ko EHAAn (253. zk.) eta 2025eko abenduaren 30eko EHAAn (251. zk.) argitaratu.

Irailaren 21eko 4/2023 Legegintzako Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak, 16. artikuluan ezartzen du karrerako funtzionario irakasleak hautatzeko sistema oposizio-lehiaketa izango dela eta aurrez deialdi publikoa egingo dela.

Era berean, otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluak ezarritakoaren arabera, deialdia egiten duten administrazio publikoek, behin lan-eskaintzak onartuz gero, deialdiak egin behar dituzte aipatutako lan-eskaintza horietan baimentzen diren lanpostuak betetzeko, aplikagarri zaizkien funtzio publikoko arauak betez betiere (276/2007 Errege Dekretua, otsailaren 23koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan jasotzen diren irakasle-kidegoetan sartzeko eta espezialitate berriak eskuratzeko Erregelamendua onartzen duena eta aipatutako legearen hamazazpigarren xedapen iragankorrean jasotako sarrerako aldi baterako erregimena arautzen duena da).

Aipatutako araudian xedatutakoa betez, maisu-maistren kidegoan sartzeko hautaketa-prozeduraren deialdia egiten da agindu honen bidez, aipatutako enplegu publikoaren eskaintzetan onartutako plazak betetzeko.

Irakaskuntza-kidegoetara sartzeko prozedurari dagokionez, otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren III. tituluan jasotako xedapenak aplikatu behar dira.

Horiek horrela, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37. artikuluan xedatutakoa bete denez, eta sail honi esleitu zaizkion eskumenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren kidegoan sartzeko hautaketa-prozeduraren deialdia egitea Gobernu Kontseiluaren 2023ko abenduaren 19ko, 2024ko abenduaren 17ko eta 2025eko abenduaren 16ko erabakietan iragarritako lanpostuei dagokienez. Erabaki horien bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren 2023., 2024. eta 2025. urteetarako enplegu publikoaren eskaintzak onartu ziren, hurrenez hurren.

Bigarrena.– Hautaketa-prozedura hori arautuko duten oinarriak onartzea.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Agindu honen aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, dagokion salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 2a.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.

ERANSKINA

OINARRIAK

AURKIBIDEA

I. kapitulua.– Oinarri orokorrak.

1.– Xedea, parte hartzeko txandak eta plazak.

II. kapitulua.– Parte hartzeko baldintzak.

2.– Parte hartzeko baldintza orokorrak eta espezifikoak zehaztea.

III. kapitulua.– Parte hartzeko eskaera eta dokumentazioa.

3.– Parte hartzeko eskabidea, tasak, eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak, aurkeztеko lekua eta epea.

IV. kapitulua.– Onartutako eta baztertutako izangaiak.

4.– Izangaiak onartzea.

V. kapitulua.– Hautaketa-organoak.

5.– Hautaketa-organoak: epaimahaiak, hautaketa-batzordeak eta batzorde barematzaileak.

VI. kapitulua.– Oposizio faseko proben definizioa eta ezaugarriak.

6.– Sartzeko prozedurako oposizio fasea (txanda irekia eta desgaitasuna dutenentzat gordetako txanda).

VII. kapitulua.– Lehiaketa fasea.

7.– Baremazioa eta puntuazioen publizitatea.

VIII. kapitulua.– Lehiaketa eta oposizio faseak gainditzea.

8.– Lehiaketa eta oposizio faseetako puntuazioen haztapena eta puntuazio orokorra.

9.– Izangaiak ordenatzea eta lehiaketa-oposizioa gainditzea.

10.– Hautatutako pertsonek egin beharreko jarduketak.

IX. kapitulua.– Praktika fasea.

11.– Praktiketako funtzionario izendatzea.

12.– Praktika fasearen ezaugarriak eta ebaluazioa.

X. kapitulua.– Karrerako funtzionarioak.

13.– Karrerako funtzionario izendatzea.

XI. kapitulua.– Irakasleen ordezkogaien zerrendak.

14.– Oposizio fasea gainditu dutenentzat zerrendak irekitzea.

15.– Puntuazioa ematea hautaketa-prozesuko oposizio fasea gainditzen dutenei.

XII. kapitulua.– Datu pertsonalen tratamendua.

16.– Datu pertsonalen tratamendua.

I. KAPITULUA

OINARRI OROKORRAK

1.– Xedea, parte hartzeko txandak eta plazak.

1.1.– Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren kidegoan sartzeko oposizio-lehiaketarako deialdia egiten da.

1.2.– Eskainitako plazak 1.374 dira guztira, A-2 azpitaldekoak (Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren kidegoa), eta irakaskuntzako lanpostuen 2. hizkuntza-eskakizuna daukate eta derrigortasun-data igarota daukate.

Horietatik, 1.277 plaza eskaintzen dira txanda irekian (A), eta 97 plaza desgaituentzat gordetako txandan (B).

1.3.– Lanpostuak honela banatzen dira espezialitatearen eta txandaren arabera:

Espezialitatea	2. HE		Plaza kopurua
	A	B	
Haur Hezkuntza	214	16	230
Lehen Hezkuntza	562	43	605
Ingelesa	147	11	158
Gorputz Hezkuntza	54	4	58
Musika	31	2	33
Hezkuntza Berezia: Pedagogia Terapeutikoa	223	17	240
Hezkuntza Berezia: Entzumena eta Hizkuntza	46	4	50
Plaza kopurua, guztira	1.277	97	1.374

1.4.– Lanpostuen ehuneko zazpi desgaitasuna duten pertsonek betetzeko gordetzen dira, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 59. artikuluan eta Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 74. eta 75. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera (5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena da).

1.5.– Desgaitasuna dutenentzat gordetako txandan eskainitako plazak, hutsik geratzen badira, txanda irekian eskainitakoei gehituko zaizkie.

II. KAPITULUA

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

2.– Parte hartzeko baldintza orokorrak eta espezifikoak zehaztea.

2.1.– Betekizun orokorrak.

Hautaketa-prozeduran onartuak izan nahi dutenek baldintza orokor hauek bete beharko dituzte:

a) Europar Batasuneko estatu bateko herritarra izatea, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen aplikazio-eremuaren barruan egotea, horietan langileen zirkulazio askea ezartzekoa denean.

Parte hartu ahal izango dute, halaber, Europar Batasuneko estatuetako herritarren ezkontideek, ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek, eta Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen zirkulazio askea ezartzekoa den estatuetako herritarren ezkontideek eta ondorengoek, dagokion itunak hala aurreikusten duenean, haien nazionalitatea edozein dela ere, baldin eta ezkontideak zuzenbidez bananduta ez badaude, eta, ondorengoei dagokienez, hogeita bat urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak baina gurasoen kargura bizi badira.

b) Hamasei urte beteta edukitzea eta erretirorako oro har ezarritako adina ez izatea.

c) Lortu nahi den kidego eta espezialitateari dagozkion eginkizunak betetzearekin bateraezina den gaixotasunik edo muga fisiko edo psikikorik ez izatea.

d) Diziplina-espediente bidez inongo administrazio publikotako zerbitzutik bereizita ez egotea, eta funtzio publikoak betetzeko desgaituta ez egotea.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek egiaztatu beharko dute, halaber, beren estatuan funtzio publikoan sartzea eragozten dien diziplina-zehapenik edo zigor penalik ez dutela.

e) Lortu nahi den kidegoan karrerako funtzionario edo praktiketako funtzionario ez izatea edo karrerako funtzionario izendatua izateko zain ez egotea.

f) Irakasle-lanpostuen 2. hizkuntza-eskakizuna (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C-1 mailarekin pareka daitekeena) egiaztatzea, 2.5 oinarriarekin bat.

Hala ere, martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriarekin bat, bitarteko irakasleek eta aipatutako dekretua indarrean sartzean (1993ko apirilaren 3a) Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako / OHOko eta Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe publikoetako irakasle-lanpostuetan aldi baterako kontratatutakoek, funtzionario izaera eskuratzen badute, hiru urteko epea izango dute hori egiaztatzeko, lanpostuaz jabetzen direnetik zenbatzen hasita; baldin eta euskaraz edo euskarazko izendapenarekin irakasten ari baziren eta 2. hizkuntza-eskakizuna esleituta daukaten eta berehalako derrigortasun-data daukaten plazetan sartzen badira.

g) Gaztelaniaren ezagutza egiaztatzea, nazionalitate espainiarra ez duten eta hizkuntza ofiziala espainiarra ez duten pertsonen kasuan, 2.6 oinarrian ezarritakoaren arabera.

h) Epai irmo bidez kondenatua ez izatea Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren VIII. tituluan tipifikatutako sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako inongo delitugatik, ez eta lege-testu bereko VII bis tituluan tipifikatutako gizakien salerosketaren inongo delitugatik ere.

2.2.– Betekizun espezifikoak.

2.2.1.– Baldintza orokorrez gain, izangaiek baldintza hauek ere bete beharko dituzte sartzeko prozeduran onartuak izateko:

Titulu hauetakoren bat izatea edo titulua lortzeko behar diren ikasketa guztiak gainditua eta titulua eskuratzeko eskubideak ordainduta edukitzea:

– Maisu edo maistraren titulua edo maisu edo maistraren lanbidean jarduteko gaitzen duen gradu-titulua, espezialitatea edozein dela ere.

– Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle-titulua.

– Lehen Hezkuntzako maisu edo maistraren titulua.

2.2.2.– Atzerrian lortutako titulazioak dituztenek egiaztatu beharko dute beren tituluak maisu- edo maistra-lanbidean jarduteko gaitzen duen Espainiako tituluarekin homologatuta daudela, edo, hala dagokionean, lanbide horretan sartzeko eta jarduteko lanbide-kualifikazioa aitortuta daukatela.

2.3.– Desgaitasuna dutenentzat gordetako txandan parte hartzeko baldintzak.

Txanda honetan parte hartu ahal izango dute eskatzen diren baldintza orokor eta espezifikoak betetzeaz gain % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna aitortuta daukatenek; desgaitasun hori eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean aitortua izan behar dute, desgaitasun-maila aitortzeko, deklaratzeko eta kalifikatzeko eskumena duten organoen bidez, urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren arabera. Irakaskuntzakoa ez den beste lanbide batean ezintasun iraunkor osoagatik pentsioa aitortuta daukatenek ere parte hartu dezakete. Bi kasuetan, ez du bateraezintasunik egon behar irakaskuntzan aritzearekin, eta lortu nahi den kidego eta espezialitateko zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izan behar da.

Erreserba hori hautatzeko, adierazi egin beharko da parte hartzeko eskabidean, eta berariaz adierazi beharko da horretarako eskatzen den baldintza betetzen dela. Plaza lortzen badu, organo eskudunek emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da baldintza hori.

Hala ere, oposizio faseko probak egiten diren bitartean edo praktika fasean zehar epaimahaiak zalantzak baditu izangaiak lortu nahi duen kidegoko eta espezialitateko funtzionarioek egin ohi dituzten jarduerak egiteko gaitasunari buruz, epaimahaiak edo, hala badagokio, praktika faseko kalifikazio-batzordeak horren berri eman beharko dio deialdia egin duen organoari, eta organo horrek dagokion irizpena eskatu ahal izango dio organo eskudunari. Irizpena eskatzen bada, etenda geratuko da prozesuan onartzeari edo baztertzeari buruzko behin betiko ebazpena, eta izangaiak baldintzatuta jarraitu ahal izango du parte hartzen hautaketa-prozesuan, harik eta irizpena jaso arte.

Hautaketa-prozedura sarbide libreko izangaien baldintza berberetan egingo da, alde batera utzi gabe denboran eta baliabide materialetan egin beharreko egokitzapenak, zeinak 3.1.2 oinarrian adierazten den bezala eskatu behar baitira.

Sartzeko txanda hori aukeratzen dutenek ezin izango dute beste txanda batean parte hartu espezialitate berean, ezta ondoren txanda aldatu ere.

2.4.– 2.1, 2.2 eta 2.3 oinarrietan zerrendatutako baldintza guztiak bete beharko dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, eta karrerako funtzionario gisa lanpostuaz jabetu arte mantendu beharko dira, salbu eta hizkuntza-eskakizunaren betekizuna eta gaztelaniaren ezagutzaren eskakizuna (atzerritarrentzakoa), zeina oposizio fasean, eskuratu nahi den espezialitatean, idatziz gai bat garatzeko proba egiten den egunean eduki beharko baita. Kontuan hartu beharko da, halaber, 2.1.f) oinarriko 2. paragrafoan hizkuntza-eskakizunari dagokienez ezarritakoa.

2.5.– Irakasleen lanpostuen 2. hizkuntza-eskakizuna.

2.5.1.– 2.1.f) oinarrian jasotako baldintza betetzeko (irakasle-lanpostuen 2. hizkuntza-eskakizuna, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C-1 mailarekin pareka daitekeena), honako titulazio edo ziurtagiri hauetakoren bat eduki behar da:

a) Irakasle-lanpostuen 2. hizkuntza-eskakizuna.

b) Euskararen Gaitasun Agiria (EGA).

c) Euskararen Gaitasun Agiria edo 5. maila (urtarrilaren 24ko 47/1992 Errege Dekretua) edo Euskararen C1 Gaitasun Mailaren Ziurtagiria (otsailaren 24ko 46/2009 Dekretua), Euskal Autonomia Erkidegoko eta beste autonomia-erkidego batzuetako hizkuntza-eskola ofizialena.

d) Euskararen C1 maila aurreratuaren ziurtagiria (80/2019 Dekretua, maiatzaren 21ekoa), Euskal Autonomia Erkidegoko eta beste autonomia-erkidego batzuetako hizkuntza-eskola ofizialena.

e) Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak (IVAP) emandako 3. hizkuntza-eskakizuna.

f) HABEren 3. mailako eta C1 mailako ziurtagiria (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea).

g) Osakidetzako 3. hizkuntza-eskakizuna.

h) Ertzaintzaren 2. hizkuntza-eskakizuna.

i) Euskaltzaindiaren D ziurtagiria.

j) Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren 2. eta 5. artikuluetan jasotako baldintzak betetzen dituzten unibertsitate-tituluak (47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dekretua da).

k) Azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 eta C2 mailekin parekatutako beste titulu eta ziurtagiri batzuk (297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dekretua da).

2.5.2.– Daukan hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea.

Hautatutako pertsonen zerrenda argitaratu ondoren eta hizkuntza-eskakizunaren egiaztagiria entregatu ondoren egiaztatuko da hizkuntza-eskakizuna, beharrezkoa den kasuetan, 10. oinarrian ezarritakoaren arabera.

2.6.– Gaztelaniaren ezagutza egiaztatzea.

Espainiako nazionalitaterik ez duenak, hizkuntza ofizialtzat espainiera ez badu, hizkuntza horren ezagutza egokia duela egiaztatu beharko du, titulu edo ziurtagiri hauetakoren baten bidez:

– Espainieraren diploma (goi-mailako maila) edo espainieraren C2 mailako diploma, urriaren 31ko 1137/2002 Errege Dekretuaren arabera (otsailaren 22ko 264/2008 Errege Dekretuak aldatu egin zuen dekretu hori).

– Atzerritarrentzako espainieraren gaitasun-ziurtagiria edo maila aurreratuaren ziurtagiria, hizkuntza-eskola ofizialek emana.

– Filologia Hispanikoko edo Erromanikoko lizentziadun-titulua edo dagokion gradu-titulua.

– Kidegoan sartzeko alegatutako titulua, Espainiako Estatuan edo espainiera hizkuntza ofiziala duen estaturen batean emana eta egina.

Egiaztapen horretatik salbuetsita daude espainiarra ez den beste nazionalitate bat duten baina hizkuntza ofizial gisa gaztelania duten pertsonak eta aurreko hautaketa-prozesuetako deialdietan gaztelaniazko proba bat gainditu dutela egiaztatzen dutenak.

III. KAPITULUA

PARTE HARTZEKO ESKABIDEA ETA DOKUMENTAZIOA

3.– Parte hartzeko eskabidea, tasak, eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak, aurkezteko lekua eta epea.

3.1.– Parte hartzeko eskaerari buruzko argibideak.

3.1.1.– Parte hartu nahi dutenek eskabidea aurkeztu beharko dute. Horretarako, Interneteko helbide honetan eskuragarri dagoen eskabidea bete beharko da: https://hezigunea.euskadi.eus/ – «2026ko EPE. Maisu-maistrak» – «Onartzeko eskabidea»

Parte hartu nahi den espezialitate bakoitzeko eskabide bat bete beharko da. Eskabidea betetzean, izangaiarentzako frogagiri bat lortuko da (Interesdunarentzako alea).

Eskabidea bete ondoren, izangai bakoitzaren espedienteari buruz hautaketa-prozesuan zehar argitaratzen den informazioa Hezigunearen atarian eskuratuko da (https://hezigunea.euskadi.eus/).

Espezialitate bat baino gehiagorako eskabideak aurkezten badira, ez da bermatzen izangaiak eskatutako espezialitate bakoitzeko probak egin ahal izango dituenik. Espezialitate desberdinetako proben hasiera aldi berean gertatzen bada, ez da itzuliko azterketa-eskubideengatiko tasa gisa ordaindutako zenbatekoa.

3.1.2.– Desgaitasuna duten izangaiek egoera hori adierazi beharko dute eskabidean, dagokion laukian, bai eta probak egiteko denborari eta baliabide materialei buruz eskatzen duten egokitzapena ere, gainerako izangaien baldintza berberetan jarduteko. Egokitzapena eskatuz gero, 3.3.1.b) oinarrian adierazitako dokumentua ere aurkeztu beharko da.

Era berean, egokitzapenak eskatu ahal izango dira amatasunarekin edo osasun-arazoekin lotutako salbuespenezko kasuetan, kasu horiek gerora sortutakoak eta ukitutako pertsonaren beraren borondatearekin zerikusirik ez dutenak badira. Eskabidean, berariaz adierazi beharko da zer egokitzapen egin behar den, eta premia hori egiaztatzen duen dokumentazioa erantsi beharko da.

3.1.3.– Izangaiek eskabidean «Adingabekoaren babesa» izeneko atala bete beharko dute, 2.1.h) oinarrian aurreikusitako baldintza betetzen dutela egiaztatzeko. Atal hori betez, adieraziko da Hezkuntza Sailari baimena ematen zaion ala ez beraren izenean Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57. artikuluan aipatzen den ziurtagiria eskuratzeko, hautatua izanez gero. Baimenik ematen ez badute eta hautatuak badira, Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketako Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharko dute, 10. oinarrian adierazitakoaren arabera.

Hala ere, atal hau ez zaie eskabidean erakutsiko Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkogaien zerrendan daudelako edo Euskal Autonomia Erkidegoko karrerako funtzionarioak direlako aurretik baimen hori eman dutenei.

3.2.– Tasak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bateginaren 36. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera (martxoaren 20ko 1/2025 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori), deialdi honetan parte hartu ahal izateko, hautagai bakoitzak inskripzio-tasa ordaindu beharko du.

Eskabideak aurkezteko epearen barruan ordaindu beharko da tasa, eta ordaindu beharreko zenbatekoa 20,68 euro da.

Diru-zenbatekoa ordainketa-pasabidearen bitartez ordaindu behar da, egoitza elektroniko honetan: https://euskadi.eus/nireordainketa

Ordaintzeko aukera hori egunean 24 orduz egongo da erabilgarri eskabideak aurkezteko epean, baina, horretarako, ezinbestekoa izango da banka elektronikoko bezero izatea atxikitako finantza-entitateetakoren batean. Bizum bidez edo banku-txartel bidez ere ordaindu ahal izango da.

Ez da beharrezkoa izango tasa ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztea.

Ez ordaintzeak edo epez kanpo ordaintzeak izangaia baztertzea ekarriko du. Ordaindutako zenbatekoan egindako akatsa hamar egun balioduneko epean zuzendu ahal izango da, onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Tasa hori ez da itzuliko baldin eta interesduna hautaketa-probetatik kanporatzen bada berari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik, eta proba egitera joaten ez bada edo hautaketa-prozesuan izena ematean huts egiten badu, orduan ere ez.

Banketxean ordaintzeak ez du inola ere ordezkatuko eskabidea oinarri honetan aurreikusitako epean eta moduan betetzeko izapidea.

3.3.– Parte hartzeko eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

3.3.1.– Parte hartzeko eskabidea aurkezteko ezarritako epe berean, eskabidea aurkeztu ondoren, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Agindu honen I. eranskinean aurreikusitako merezimenduen egiaztagirien kopia, kasuaren arabera. Kontuan hartu behar da ofizioz aintzakotzat hartzen ez diren merezimenduen egiaztagiriak baino ez direla alegatu eta aurkeztu behar, eta ofizioz aintzakotzat hartzen ez diren arren Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota ez daudenak ere bai. Horretarako, jasota daudela egiaztatu beharko dute eskatzaileek. Eranskin horietan, ofizioz aintzakotzat hartzen diren merezimenduak zehaztuta daude dagozkien epigrafeetan.

Egiaztapen hori egiteko, izangai bakoitzak bere espediente pertsonalean dagoen informazioa kontsultatu beharko du, helbide honetan: https://hezigunea.euskadi.eus/ (sartu «Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza») – «Eremu pertsonala» – «Nire datu laboralak»; honako atal hauetan:

– Zerbitzu-orria.

– Tituluak, espezialitatea eta ziurtagiriak (atal honetan espediente akademikoaren batez besteko nota ere ager daiteke).

Ikastaroei dagokienez, helbide berean kontsultatu beharko duzu https://hezigunea.euskadi.eus/ (sartu «Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza») – «Eremu pertsonala» – «Nire prestakuntza» – «Nire ikastaro guztiak ikusi»

Dokumentazioa 3.4 oinarrian adierazten den helbidearen bidez entregatu behar da, PDF formatuan, eta entrega hori egiteko aurreikusitako aplikazio informatikoan zehaztuko diren jarraibideen arabera, eta entrega amaitu eta erregistratu beharko da, jasota gera dadin.

b) Desgaitasuna duten izangaiek, probak egiteko denboran eta baliabide materialetan egokitzapenak egitea eskatzen badute, honako hauek aurkeztu beharko dituzte, eskatutako egokitzapenak bidezkoak diren ala ez baloratu ahal izan dezan hautaketa-organoak: desgaitasun-maila

kalifikatzeko organo tekniko eskudunak emandako irizpen tekniko fakultatiboa, aitortutako desgaitasun-maila eragin duten urritasun iraunkorrak modu frogagarrian egiaztatzen dituena, edo Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ebazpena, irakaskuntzakoa ez den beste lanbide batean ezintasun iraunkor osoa deklaratzen duena.

Aurkeztutako dokumentazioa, eskatutako egokitzapenak eta aplikatu beharreko araudia ikusita, eskatutako egokitzapenak onartu edo ukatu egingo dira; erabakia interesdunari jakinaraziko zaio, eskaera aurkezten den egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Dokumentazioa 3.4 oinarrian adierazten diren helbideen bidez entregatu behar da, PDF formatuan, eta entrega hori egiteko aurreikusitako aplikazio informatikoan zehaztuko diren jarraibideen arabera, eta entrega amaitu eta erregistratu beharko da, jasota gera dadin.

3.3.2.– Merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioari dagokionez, «Merezimenduak alegatzeko eta aurkezteko orria. 2026ko EPEa» frogagiria eta justifikazio-agiriak bete eta entregatu behar dira, 3.4 oinarrian adierazitako lekuetan. Frogagiri horretan, dokumentazioa zer atal zehatzetan entregatzen den eta zer justifikazio-dokumentazio aurkezten den adierazi beharko da.

Gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza batean emandako dokumentazio guztia Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batera egindako itzulpen ofizialarekin batera aurkeztu beharko da. Itzulpen horrek zinpeko itzultzaileak egina edo dagokion kontsulatu edo bulego diplomatikoak baliozkotua izan behar du.

Nolanahi ere, Administrazioak behar diren argibideak eskatu ahal izango dizkie parte hartzen duten langileei zalantzak edo erreklamazioak eragiten dituen dokumentazioari buruz. Halaber, aurkeztutako agirien jatorrizko agiriak eskatu ahal izango zaizkio izangaiari, erkatzeko. Jatorrizko dokumentuaren eta haren kopiaren artean zuzendu ezin den edozein alderen bat badago, baliorik gabe utziko da alegatutako merezimendua, alde batera utzi gabe hortik datorkeen erantzukizunari aurre egin behar izatea.

Izangaiek beren gain hartzen dute aurkeztutako dokumentazioa egiazkoa izatearen erantzukizuna. Dokumenturen bat faltsua bada edo manipulatzen bada, galdu egingo da deialdi honetan parte hartzeko eskubidea, erantzukizunak gorabehera.

3.4.– Agiriak aurkezteko lekua.

Agindu honen 3.3 oinarrian adierazitako dokumentazioa (merezimenduak eta egokitzapenak) Hezkuntza Sailaren Interneteko helbide honetan entregatu beharko da:

https://hezigunea.euskadi.eus/ («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2026ko EPE. Maisu-maistrak».

Gero, dagokion atalean sartu beharko da, kasuaren arabera:

– «Merezimenduak entregatzea».

– «Probarako egokitzapenak. Desgaitasuna».

3.5.– Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea.

Deitutako prozeduretan parte hartu nahi dutenek hogei egun balioduneko epea izango dute, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, 3.1 oinarrian adierazten den parte hartzeko eskabidea betetzeko.

Epe berean aurkeztu beharko dituzte 3.3 oinarrian aipatutako dokumentuak, 3.4 oinarrian adierazitako lekuetan.

IV. KAPITULUA

ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO IZANGAIAK

4.– Izangaiak onartzea.

4.1.– Onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Langileriaren Kudeaketako zuzendariak ebazpena emango du hilabete igaro baino lehen, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko.

Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren ebazpena eta behin-behineko zerrenda, interesdunei jakinarazteko, Interneteko helbide honetan argitaratuko dira: https://hezigunea.euskadi.eus/ («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2026ko EPE. Maisu-maistren» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena».

Izangai bakoitzak parte hartzen duen txanda eta espezialitatea jasoko dira zerrendan, bai eta, kanporatuz gero, horren arrazoia ere.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartzen duen ebazpena adierazitako lekuetan argitaratuz gero, interesdunei jakinarazpena egiteko izapidea beteta geratuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

4.2.– Erreklamazioak.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendaren aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango da, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik hamar egun baliodun igaro baino lehen, edo, hala badagokio, zuzendu ahal izango da baztertzea eragin duen akatsa. Halaber, beren datu pertsonalak jasotzean akatsak atzeman dituztenek epe horretan bertan adierazi ahal izango dute.

Erreklamazioak Langileriaren Kudeaketako zuzendariari zuzendu behar zaizkio, eta 4.1 oinarrian aipatutako ebazpenean adierazitako lekuetan aurkeztu behar dira.

Interesdunak ez badu adierazitako epean zuzentzen baztertzeko arrazoia izan den akatsa, eskaeran atzera egin duela iritziko zaio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoaren arabera.

4.3.– Onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda.

Aurkeztutako erreklamazioak Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren ebazpen baten bidez onartu edo ezetsiko dira, eta ebazpen horretan onartutzat emango da onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda.

Ebazpena eta behin betiko zerrenda behin-behineko zerrendarako adierazitako leku berberetan argitaratuko dira.

Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen.

Onartutako izangaien zerrendan agertzeak ez du esan nahi deialdi honetan eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztenik. Beraz, onartutako pertsonek prozedura honetan parte hartzetik eratorritako eskubideak izateko, 10. oinarrian jasotako dokumentuak aurkeztu beharko dira, eta, ondorioz, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu beharko da.

4.4.– Prozesuan onartuta daudenak joan ahal izango dira oposizio-aldiko probak egitera, bai eta, baztertuta egonda ere, deitutako ekitaldian dagokion gorako errekurtsoa aurkeztu dutela eta ebazteko dagoela justifikatzen dutenak ere. Azken izangai horiek egindako jarduketak ondoriorik gabe geratuko dira, baldin eta berariazko edo ustezko ebazpenean haien errekurtsoa ezesten bada.

V. KAPITULUA

HAUTAKETA-ORGANOAK

5.– Hautaketa-organoak: epaimahaiak, hautaketa-batzordeak eta batzorde barematzaileak.

5.1.– Hautaketa-organoek hautatuko dituzte prozedura honetan parte hartuko dutenak.

Hautaketa-organoetan parte hartzea nahitaezkoa da, ezertan eragotzi gabe 5.5 oinarrian abstentzio- edo errekusazio-arrazoiei buruz aurreikusitakoa eta 5.2.2 oinarrian salbuespen-kasuei buruz aurreikusitakoa.

Organoko kide ez izateko iruzurrezko jarduerak eginez gero, edo presidenteak deialdia egin arren kideek bilkurak –eraketa-bilkura barne– arrazoirik gabe huts eginez gero, edo prozesuaren garapenean dituzten betebeharrak betetzen ez badituzte, dagokien erantzukizuna eskatuko zaie, eta, hala badagokio, funtzio publikoari aplikatu beharreko diziplina-araubidea aplikatuko zaie.

Organo horien jarduteko prozedura Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoaren barruan errenditu behar da une oro.

5.2.– Epaimahaiak.

5.2.1.– Epaimahai kopurua.

Beharrezkotzat jotzen diren beste epaimahai izendatu ahal izango dira, espezialitate bakoitzean dagoen eskatzaile kopuruaren arabera.

5.2.2.– Osaera eta izendapena.

Epaimahaiek bost kide izango dituzte: epaimahaiburu bat eta lau epaimahaikide. Bostek karrerako funtzionarioak izan behar dute, irakasle funtzionarioen kidegoetan jardunean daudenak, edo Hezkuntzako ikuskariak, eta sailkapen-talde bereko edo handiagoko kidegoetakoak izan behar dute, eta ordezkaritza handiena maisu-maistren kidegokoek izan behar dute.

Osaeran, espezialitate-printzipioa betetzen dela zainduko da, eta, horren arabera, kide gehienek epaituko duten espezialitateko titularrak izan beharko dute, eta, ahal dela, gaur egun espezialitate horretan izan beharko dute destinoa. Halaber, arrazoi funtsatuek eta objektiboek eragozten ez badute, trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakume eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatu beharko da, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1.b) artikuluari jarraituz (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena da).

Hezkuntzako sailburuak askatasunez izendatuko du epaimahaiburua. Oinarri honetako aurreko bi paragrafoetan aipatutako karrerako funtzionarioen artean aukeratuko dira kideak, zozketa bidez. Hala ere, espezialitateko titularren kopurua dela-eta zozketa egitea ezinezkoa den espezialitateetan, Hezkuntzako sailburuak zuzenean izendatuko ditu espezialitate horietako epaimahaietako kide espezialitate horien titular diren karrerako funtzionarioak.

Epaimahai bakoitzerako beste horrenbeste ordezko kide izendatuko da, prozedura beraren bidez. Epaimahai bat baino gehiago duten espezialitateen kasuan, ordezko epaimahaia egon arren ezin bada epaimahaia bost kiderekin eratu, espezialitate bereko beste epaimahai batzuetako ordezko kideekin eratu ahal izango dira, epaimahaiak izendatzeko aginduan aurreikusten diren baldintzen arabera.

Zozketa Lakua-2 eraikinean egingo da (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz), eta zozketa egin baino lehen iragarriko da eguna, Interneteko helbide honetan: https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-langileak/ – «2026ko EPE. Maisu-maistren».

Epaimahaiak Hezkuntzako sailburuaren agindu baten bidez izendatuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratzen den egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Epaimahaietan parte hartzetik salbuetsita egongo dira, eta, beraz, zozketan ez dira kontuan hartuko, hautaketa-prozeduran zehar egoera hauetan dauden karrerako funtzionarioak:

a) Kidegoan zerbitzu aktiboan egotea ez den beste administrazio-egoera batean egotea.

b) Irakasle funtzionarioei irekita dagoen Administrazio orokorreko lanpostu batean jardutea.

c) Zuzendari-, ikasketaburu- eta idazkari-karguak betetzea.

d) Ikasturte osorako ordaindu gabeko baimena hartuta egotea.

e) Partzialki ordaindutako baimena hartuta egotea.

f) Lanaldia murrizteko baimena hartuta egotea.

g) Sindikatu-ordezkaritzako eginkizunak betetzeko lizentzia izatea, lanera joateko erabateko liberazioa dakarrena.

h) Seme edo alaba baten jaiotzagatiko, adopzioagatiko edo harreragatiko lizentzia hartuta egotea, edo bularra emateko aldia metatzeagatiko lizentzia.

i) Haurdunaldiko arriskuagatiko lizentzia hartuta egotea.

j) Ezkontzagatiko lizentzia hartzea, baldin eta lizentzia hartzeko egunak eta oposizio fasea oso-osorik bat badatoz.

k) Iraupen luzeko aldi baterako ezintasunagatiko lizentzia hartuta egotea. Noizbehinkako gaixotasunak eragindako aldi baterako ezintasunari dagokionez, dagokion medikuak eman behar du, baina ezintasun horrek ez du salbuesten epaimahaietan parte hartzeko betebeharretik. Egoera horretan dagoen funtzionarioak, epaimahaiko titular edo ordezko izendatu badute, eta hautaketa-prozesua hasi baino lehen lortzen badu alta, epaimahaian sartu beharko du.

Adierazitako kasuren batean dauden pertsonak izendatu badira zozketan, pertsona horiek salbuespena eskatuko diote Langileriaren Kudeaketako Zuzendaritzari, hautaketa-organoen izendapena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik bost egun baliodun igaro baino lehen.

Era berean, zozketan ez dira kontuan hartuko maisu-maistren kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduran (Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deitua –2022-12-28ko EHAA–) presidente eta bokal gisa parte hartu zutenak, salbu eta libre dauden karrerako funtzionarioen kopurua dela-eta epaimahai osoa izendatzea ezinezkoa den espezialitateetan.

Epaimahaiko bokalen joan-etorrien kalteak eta eragozpenak minimizatzeko, zozketa lurralde-mailan egingo da, kontuan hartuta espezialitate bakoitzeko epaimahaiek zer lurralde historikotan izango duten egoitza. Adierazitako lurralde-irizpidea kontuan hartuta epaimahai guztietako bokal guztiak izendatzea ezinezkoa den kasuetan, zozketa bidez osatuko dira, beste bi lurralde historikoetako karrerako funtzionarioekin. Lurralde-irizpide hori salbuetsi ahal izango da karrerako funtzionario gutxi dauden espezialitateetako epaimahaietan.

Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren ebazpen baten bidez zehaztuko da zer lurralde historikotan kokatuko diren espezialitate bakoitzeko epaimahaien egoitzak, eta zozketa egin aurretik argitaratuko da.

Salbuespen gisa, eta justifikatutako arrazoiak direla medio, beste hezkuntza-administrazio batzuei eskatu ahal izango zaie espezialitateko edo, hala badagokio, dagokion kidegoko funtzionarioak proposa ditzatela epaimahai horietan parte hartzeko, edo horiek beste espezialitate bateko funtzionarioekin osatu ahal izango dira, aipatutako lurralde-irizpideari jarraituz orduan ere; azken kasu horretan, aholkulari espezialistak izendatu ahal izango dira, 5.6 oinarrian aurreikusitakoaren arabera.

Epaimahaiak izendatzerakoan, autonomia-erkidego honetako bi hizkuntza ofizialetako hizkuntza-gaitasuna bermatu beharko da.

5.3.– Hautaketa-batzordeak.

Aurkeztutako eskabideen kopurua dela-eta espezialitate baterako edo batzuetarako epaimahai bat baino gehiago eratu behar bada, hautaketa-batzordeak eratuko dira espezialitate horietarako.

Batzorde horiek espezialitateko epaimahaiburuek osatuko dituzte, gutxienez bostek, eta, haiekin kopuru horretara iristen ez bada, epaimahaietako bokalek osatuko dituzte, honela:

1.– Lau epaimahai badaude:

Batzordeburua: 1. epaimahaiko burua.

Batzordekideak: 2., 3. eta 4. epaimahaietako buruak eta 1. epaimahaiko idazkaria.

2.– Hiru epaimahai badaude:

Batzordeburua: 1. epaimahaiko burua.

Batzordekideak: 2. eta 3. epaimahaietako buruak eta 1. eta 2. epaimahaietako idazkariak.

3.– Bi epaimahai badaude:

Batzordeburua: 1. epaimahaiko burua.

Batzordekideak: 2. epaimahaiko burua, 1. eta 2. epaimahaietako idazkariak eta 1. epaimahaiko 1. bokala.

Espezialitateko zenbaki txikieneko epaimahaiko buruak egingo du batzorde horietako buru.

Epaimahai bakarra izendatzen den espezialitateetan, epaimahai horrek hautaketa-batzorde gisa ere jardungo du, ondorio guztietarako.

5.4.– Batzorde barematzaileak.

Espezialitate bakoitzean dauden eskatzaileen kopuruaren arabera, beharrezkoak diren batzorde barematzaileak eratu ahal izango dira, espezialitateka edo espezialitate-taldeka. Gutxienez bost kidek eta gehienez zazpi kidek osatuko dituzte (presidente batek eta gainerakoek, bokalek). Presidentea Hezkuntzako ikuskari bat izango da, Hezkuntzako sailburuak izendatua, eta bokalak zozketa bidez izendatuko dira, dagokien batzordeari dagokion kidegoan eta espezialitatean edo espezialitateetan jardunean dauden karrerako funtzionarioen artean.

Arrazoi funtsatuek eta objektiboek eragozten ez badute, trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatuko da, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1.b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena da).

Batzorde barematzaileak eratu behar izanez gero, epaimahaietako bokalen zozketarekin batera egin ahal izango da batzorde horietako bokalen zozketa.

Batzorde barematzaileei 5.2.2 oinarrian epaimahaientzat aurreikusitako salbuespen-arrazoi berberak aplikatuko zaizkie.

Bokalen joan-etorrien kalteak eta eragozpenak minimizatzeko, zozketa lurralde-mailan egingo da, kontuan hartuta espezialitate bakoitzeko batzorde barematzaileek zer lurralde historikotan duten egoitza. Adierazitako lurralde-irizpideari jarraikiz batzorde barematzaileetako bokal guztiak izendatzea ezinezkoa den kasuetan, zozketa bidez osatuko dira, beste bi lurralde historikoetako karrerako funtzionarioekin. Lurralde-irizpide hori salbuetsi ahal izango da karrerako funtzionario gutxi dauden espezialitateetako batzorde barematzaileetan.

Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren ebazpen baten bidez zehaztuko da zer lurralde historikotan kokatuko diren espezialitateetako batzorde barematzaileen egoitzak, eta zozketa egin aurretik argitaratuko da ebazpena.

Salbuespen gisa, azaldutakoa gorabehera bokal guztiak izendatzea ezinezkoa bada, beste espezialitate bateko karrerako funtzionarioekin osatu ahal izango dira batzorde barematzaileak, adierazitako lurralde-irizpidea kontuan hartuta orduan ere.

Batzorde barematzaileak izendatzerakoan, autonomia-erkidego honetako bi hizkuntza ofizialen hizkuntza-gaitasuna bermatu beharko da.

Batzorde barematzaile bakoitzerako ordezko batzorde barematzaile bat izendatuko da prozedura beraren bidez.

Batzorde barematzaileak Hezkuntzako sailburuaren agindu baten bidez izendatuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratzen den egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Kidegoan antzinatasun txikiena duen batzordekidea arituko da idazkari, Batzorde Barematzaileak bestela erabaki ezean.

Batzorde horiek Hezkuntza Sailburuordetzari atxikitako zuzendaritza eta zerbitzuen aholkularitza jaso ahal izango dute.

5.5.– Hautaketa-organoetako kideen abstentzioa eta errekusazioa.

Hautaketa-organoetako kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta Langileriaren Kudeaketako zuzendariari jakinarazi beharko diote, agiri bidez behar bezala justifikatuta, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean badaude, edo kidego eta espezialitate bereko hautaketa-probetarako izangaiak prestatzeko lanak egin badituzte deialdi hau argitaratu aurreko bost urteetan.

Buruek hautaketa-organoetako kide guztiei eskatuko diete aurreko paragrafoan aurreikusitako egoeretan ez daudela berariaz adierazteko.

Era berean, aurreko kasuetako bat gertatzen denean, interesdunek hautaketa-organoetako kideak errefusatu ahal izango dituzte, edozein unetan, aipatutako lege-testuaren 24. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Langileriaren Kudeaketako zuzendariak dagokion ebazpena emango du, baiesteko edo ezesteko.

5.6.– Hautaketa-organoak eratzea.

Lehendakariek deialdia egin ondoren, hautaketa-organoak eratuko dira, eta, ahal dela, izendatutako kide guztiak egongo dira bertan, titularrak zein ordezkoak. Lehendakaria eta idazkaria, edo, hala badagokio, haien ordezkoak, eta gutxienez kideen erdiak bertan direla eratuko dira.

Eratze-bilkura modu presentzialean zein telematikoan egin ahal izango da, eta urriaren 1eko 40/2015 Legearen 17. artikuluan xedatutakoa bete beharko da. Ekitaldi horretan bertan izendatuko da idazkaria.

Hautaketa-organoak eratu ondoren, organo bakoitzak eraketa-akta bidali behar dio, kide guztiek sinatuta, Langileriaren Kudeaketako Zuzendaritzari, ahalik eta lasterren. Balio osoz jarduteko, lehendakariak eta idazkariak egon beharko dute bertan, edo, bestela, haien ordezkoek, eta, gutxienez, kideen erdiek.

Kidegoan antzinatasun txikiena duen bokala arituko da idazkari, hautaketa-organoak bestelakorik erabakitzen ez badu behintzat.

Hautaketa-organoek beren lanetan aholkulari espezialistak eta laguntzaileak sartzea proposatu ahal izango dute. Langileriaren Kudeaketako zuzendariak izendatuko ditu. Lehenengoen eginkizuna izango da hautaketa-organoko kideei aholkuak ematea beren espezialitateko ezagutzak eta merezimenduak ebaluatzeko. Laguntzaileek organo horiekin lankidetzan jardungo dute, haiek agindutako laguntza-lan teknikoak eginez. Jardun horietan, batzuk zein besteak beren eskumenak egikaritzera errendituko dira. Aholkulari eta laguntzaileek, zer funtziotarako izendatzen diren, hartarako gaitasun profesionala izan beharko dute.

5.7.– Hautaketa-organoen eginkizunak.

5.7.1.– Epaimahaiei dagokie:

a) Hautaketa-prozesuaren faseak garatzea, deialdi honetan xedatutakoaren arabera.

b) Oposizio faseko probak kalifikatzea, V. eranskinean adierazitako balorazio-irizpideei jarraikiz, eta, nahi eta nahi ez, dagokion hautaketa-batzordeak hartutako erabakiei jarraikiz, ebaluazio-errubrikak, kalifikazio-plantillak eta antzeko beste edozein tresna barne.

c) Lehiaketa-aldiko merezimenduak baloratzea.

d) Baztertzeko proposamena egitea, zeina Langileriaren Kudeaketako zuzendariari bidaliko baitzaio, baldin eta jakiten badute izangairen batek ez dituela betetzen deialdi honetan eskatutako baldintza guztiak. Kanporatu aurretik, entzun egingo zaio, eta jakinaraziko zaio, halaber, zer zehaztasun falta edo faltsutasun adierazi dituen hautaketa-probetan parte hartzeko eskabidean, bidezkoak diren ondoreetarako. Kasu horretan, Langileriaren Kudeaketako Zuzendaritzak dagokion ebazpena eman arte, izangaiak hautaketa-prozesuan modu baldintzatuan parte hartzen jarraitu ahal izango du (ad cautelam). Baztertzeko ebazpenaren aurka, interesdunak gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen.

e) Izangaiak hautaketa-prozeduratik kanpo uztea, baldin eta, ariketak egin bitartean, proba normal eta berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera garatzea eragozten duen iruzurrezko edozer egiten badute, epaimahaikideen jarraibideak betetzen ez badituzte edo portaera desegokiak badituzte (liskarrak eragiten badituzte, bortizki, oldarkor edo larderiaz jarduten badute...). Epaimahaiburuak horren berri emango dio Langileriaren Kudeaketako Zuzendaritzari, eta dagokion bilkura-aktan jasoko du. Hautaketa-prozesutik baztertzeko epaimahaiaren erabakiaren aurka, interesdunak gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Hezkuntzako sailburuari, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen.

f) Hautaketa-prozeduraren garapenaren eta emaitzen kudeaketa administratiboa eta dokumentala egitea, barnean dela datuak eguneratzea horretarako gaitutako aplikazio informatikoen bidez eta hautagaiei jakinarazpen publikoak egitea ezarritako bitartekoen bidez.

g) Hautaketa-batzordeei agindutako eginkizunak, halako batzorderik ez badago.

5.7.2.– Hautaketa-batzordeei dagokie:

a) Epaimahaiak koordinatzea.

b) Epaimahaien jarduteko irizpideak zehaztea eta irizpideok homogeneizatzea.

c) Proba praktikoaren edukia zehazteko modua erabakitzea, deialdi honen IV. eranskinean zehaztutako premisak kontuan hartuta.

d) Lehiaketa faseko puntuazioak epaimahaiek oposizio fasean esleitutakoei gehitzea, izangaiak ordenatzea eta lehiaketa eta oposizio faseak nork gainditu dituzten deklaratzea.

e) Bi faseak gainditu dituzten izangaien zerrendak egitea eta onartzea, eta deialdia egin duen organoari zerrenda horiek helaraztea.

f) Prozesuan zehar espezialitateko epaimahaietan sortzen diren ustekabeko gai, zalantza, arazo eta egoera guztiak ebaztea, deialdi honetan eta aplikatu beharreko araudian xedatutakoa zorrotz betez, eta aldez aurretik laguntza-zerbitzu teknikoei eta, egonez gero, epaimahaietako koordinatzaileei kontsulta eginda.

5.7.3.– Batzorde barematzaileek, hala badagokie, III.1 ataleko merezimenduak baloratuko dituzte («Etengabeko prestakuntza» atalekoak), epaimahaiek eskuordetuta.

5.8.– Hautaketa-organoek behar diren neurriak hartuko dituzte, beharrezkoa denean, desgaitasuna duten izangaiek gainerako parte-hartzaileen aukera berberak izan ditzaten ariketak egiteko. Horren haritik, 3.1.2 oinarrian aurreikusitako moduan aurkeztutako eskaera onartzen zaien pertsonentzat, ahal diren egokitzapenak egingo dira denborari eta baliabideei dagokienez ariketak egiteko, baldin eta egokitzapen horiek irakaskuntza-funtzioarekin bateraezinak ez badira eta proben edukia desnaturalizatzea ez badakarte.

5.9.– Beste organo batzuen lankidetza: koordinatzaileak.

Hautaketa-organoek koordinatzaileen laguntza izan dezakete. Koordinatzaile horiek Hezkuntzako ikuskarien kidegoko karrerako funtzionarioak izango dira, eta Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak izendatuko ditu, hautaketa-organo horien koordinazioko eta administrazio-laguntzako eginkizunak betetzeko.

Koordinazioko eginkizun horiek betetzeko, prozesua behar bezala garatzen dela zainduko dute, eta, horretarako, epaimahaiekin eta hautaketa-batzordeekin lankidetzan jardungo dute, orientabideak emanez prozesuaren administrazio- eta antolaketa-kudeaketaz, proba praktikoaren prestaketaz, ebaluazio-irizpideak aplikatzeaz eta abar, prozesua garatzeko tresnak emanez, prozesuan sortzen diren zailtasunak edo gorabeherak konpontzen lagunduz eta epaimahaien funtzionamenduan, jarduketetan eta erabakietan irizpideak homogeneoak izan daitezen sustatuz.

5.10.– Kalte-ordainak eta dietak.

Agindu honen bidez deitutako prozeduretan parte hartzen duten epaimahaiek, hautaketa-batzordeek, batzorde barematzaileek, koordinatzaileek, aholkulari espezialistek eta laguntzaileek eskubidea izango dute otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan zehaztutako kalte-ordainak jasotzeko (16/1993 Dekretua, otsailaren 2koa, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzkoa da).

VI. KAPITULUA

OPOSIZIO FASEKO PROBEN DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK

6.– Oposizio fasea (txanda irekia eta desgaitasuna dutenentzat gordetako txanda).

6.1.– Ezaugarriak.

Oposizio fasean, hauek hartuko dira kontuan: lortu nahi den irakaskuntza-espezialitatearen berariazko ezagutzak izatea, gaitasun pedagogikoa izatea eta irakaskuntzan jarduteko behar diren teknikak menderatzea.

Oposizio faseak bi proba izango ditu, bi zatitan egituratuta. Proba bakoitza baztertzailea izango da.

6.1.1.– Lehenengo proba.

Aukeratutako irakaskuntza-espezialitatearen berariazko ezagutzak erakusteko proba da, eta bi zati izango ditu, denak batera baloratuko direnak.

Lehenengo probaren bi zatiak saio berean egin ahal izango dira.

A zatia: proba praktikoa, izangaiek aukeratzen duten espezialitateari dagozkion prestakuntza zientifikoa eta trebetasun teknikoak badituztela egiaztatzekoa. Trebetasun instrumentalak edo teknikoak barne hartzen dituzten espezialitateen kasuan, trebetasun horiek zati honetan ebaluatuko dira.

Proba praktikoaren edukia IV. eranskinean aurreikusitakoan oinarrituko da.

Proba praktikoa idatziz egiten denean, izangaiek gehienez ere bi ordu izango dituzte proba egiteko. Trebetasun instrumentalak eta teknikoak praktikoki erakustea eskatzen duten espezialitateak direla-eta idatziz egiten ez bada, dagokion epaimahaiak proba egin aurretik bere iragarki-taulan horretarako zer xedatzen duen, horixe egingo da.

B zatia: izangai bakoitzak idatziz garatu beharko du gai bat, berak aukeratua hautaketa-batzordeak, epaimahaiak edo horretarako ardura duen Funtzio Publikoko organoak –kasuaren arabera– ausaz ateratako gai kopuru batetik. Gai kopuru horrek espezialitate bakoitzeko gai-zerrendako gai kopuru osoarekiko proportzionala izan behar du, irizpide hauek kontuan hartuta:

a) 25 gai edo gutxiago dituzten espezialitateetan, bi gairen artean aukeratu beharko da.

b) 25 gai baino gehiago eta 51 baino gutxiago dituzten espezialitateetan, hiru gairen artean aukeratu beharko da.

c) 50 gai baino gehiago dituzten espezialitateetan, lau gairen artean aukeratu beharko da.

Zati hau prestatzeko, III. eranskinean zehaztuta dauden gai-zerrendak aplikatuko dira.

Izangaiek bi ordu izango dituzte B zatia egiteko.

6.1.2.– Bigarren proba.

Izangaiak gaitasun pedagogikoa eta konpetentzia profesionalak badituela eta irakaskuntzan jarduteko behar diren teknikak erabiltzen badakiela egiaztatzea da xedea.

Programazio didaktiko bat aurkeztu beharko du eta unitate didaktiko bat edo ikaskuntza-egoera bat ahoz prestatu eta azaldu.

a) Programazio didaktiko bat aurkeztea.

Programazio didaktikoak Euskal Autonomia Erkidegoan parte hartzen den espezialitatearekin lotutako arlo edo esparru bateko (Haur Hezkuntzako espezialitaterako) curriculumei buruzkoa izan behar du, edo, hala eskatzen duten planteamendu metodologikoak erabiliz gero (proiektuen araberako lanak, ikaskuntza-egoerak, erronkak), hainbat arlo edo eremutakoak, eta horien artean parte hartzen den espezialitatearekin lotutakoa.

Bertan, honako hauek zehaztu beharko dira: helburuak, edukiak, ebaluazio-irizpideak eta adierazleak, metodologia, baliabide didaktikoak, ebaluazio jarraiturako prozedurak eta tresnak, oinarrizko konpetentziak eskuratzeko ekarpena, eta aniztasunari emandako erantzuna; bereziki azpimarratu beharko da hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleen kasuan, goi-mailako gaitasunen kasua barne, eta genero-ikuspegia kontuan hartu beharko da.

Programazio didaktikoa bera eta irakaskuntza-praktika ebaluatzeko estrategiak ere jasoko dira. Programazio horrek bat etorri behar du espezialitate horretako irakasleek irakasteko eskumena duten hezkuntza-maila edo -etapetako bateko ikasturte batekin, eta II. eranskinean adierazten den araudiak araututako indarreko curriculumei buruzkoa izan behar du. Nolanahi ere, arauak aukeratzen den maila edo ikasturterako ezartzen dituen curriculumeko elementu eta osagai guztiak jaso behar dira programazioan.

Haur Hezkuntzako espezialitatean, izangaiak arlo bateko, biko edo hiruko programazio didaktikoa elaboratu ahal izango du.

Pedagogia Terapeutikoko espezialitatean, programazioa hautagaiak aukeratutako ikasturte akademiko baterako eta Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako ikasturte baterako jarduketa-programa bat garatzeari buruzkoa izango da. Kasu zehatz bat garatu beharko da, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei erreferentzia egingo diena, eta ikasle baten edo ikasle talde txiki baten beharretan oinarritu beharko dena, eskola-testuingurua eta dagokion ikasgelako eta ikastetxeko hezkuntza-planteamenduak erreferentziatzat hartuta.

Entzumena eta Hizkuntza espezialitatean, hautagaiak aukeratutako Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako ikasturte baterako eta urte akademiko baterako jarduketa-programa bat garatzeari buruzkoa izango da programazioa. Hezkuntza-premia bereziak dituzten edo komunikazioan eta hizkuntzan atzerapen larriak dituzten ikasleentzako kasu zehatz bat garatu beharko da. Ikasle baten edo batzuen beharretan oinarritu beharko da, eskola-testuingurua eta kide diren ikasgelako eta ikastetxeko hezkuntza-planteamenduak erreferentziatzat hartuta.

Programazio didaktikoak 40 folio izan behar ditu gutxienez, eta 60 folio gehienez, DIN-A4 formatuan, alde bakarretik idatzita. Aurrez aurreko ikasturte akademiko oso bat kontuan hartuta egin beharko da, eta gutxienez 9 unitate didaktiko edo ikaskuntza-egoera izan beharko ditu. Horiek indize batean zenbakitu beharko dira 1. zenbakitik aurrera (ez da onartuko 0 zenbakia duen unitaterik, ez eta «aurkezpen», «sarrera» edo antzeko gisa soilik identifikatutako unitaterik ere), eta arestian adierazitako alderdi bakoitzean garatu beharko dira. Unitate didaktiko edo ikaskuntza-egoera horietan proiektuak, lan-unitateak, erronkak eta abar sartu ahal izango dira. Ez da eranskinik sartu behar, epaimahaiak ez dituelako kontuan hartuko. Programazio didaktikoaren azala eta aurkibidea, ez eta erreferentzia bibliografikoak ere, ez dira sartuko 40-60 folioen zenbaketan.

Programazio didaktikoa Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren ebazpen baten bidez zehazten den epean entregatu beharko da (oposizio faseko probak hasi aurretik), horretarako aurreikusitako aplikazio informatikoaren bidez. Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko da epea.

Entrega formatu elektroniko hauetakoren batean egin behar da:

– Microsoft Office 2016 edo handiagoa.

– Libre Office 6 edo handiagoa.

– Fitxategiak Portable Document Format (PDF) formatuan.

Erabilitako formatu digitala edozein dela ere, formatu hori ezin izango da babestuta egon, epaimahaiak formatu horretarako sarbidea izango duela bermatzeko.

Hautaketa-prozesua kudeatzeko aplikazio informatikoan horretarako ezarritako prozeduraren bidez entregatu ondoren, frogagiria inprimatu beharko da, hori izango baita entrega hori justifikatzen duen agiria. Bertan, izangaia identifikatzen duen NANa eta eskabide-zenbakia agertuko dira, bai eta dokumentua entregatutako eguna eta ordua ere.

Espezialitate bererako bat baino gehiago entregatuz gero, aurkeztutako azkena bakarrik hartuko da kontuan, erregistratutako entrega-dataren eta -orduaren arabera.

Ezarritako epean entregatzen ez duten pertsonak prozesutik kanpo geratuko dira eta prozesuan jarraitzeko eskubidea galduko dute.

Programazio didaktikoa epaimahaiaren aurrean defendatu beharko du izangaiak horretarako deialdia egiten zaionean. Programazio didaktiko hori aurkezteko eta defendatzeko (publikoa da), izangaiek ezin izango dute material osagarririk erabili, eta haiek emandako programazio didaktikoaren kopia berdin-berdina baino ezin izango dute izan, azpimarraturik, oharrik edo iruzkinik gabe. Ez da onartuko programazio didaktiko bat defendatzea aurkezteko ezarritako epearen barruan aurkeztutakoaz bestelakoa bada osorik edo zati batean, eta izangaia zorrotz atxiki beharko zaio jatorrizko hitzez hitzeko edukiari, hura entregatu zen bezala.

b) Unitate didaktiko bat edo ikaskuntza-egoera bat prestatzea eta ahoz azaltzea.

Unitate didaktiko bat edo ikaskuntza-egoera bat prestatzeko eta epaimahaiaren aurrean ahoz azaltzeko egitekoa lotuta egon daiteke izangai bakoitzak aurkeztutako programazioarekin edo eratuta egon daiteke espezialitateko gai-zerrenda ofizialetik abiatuta: pertsona bakoitzak aukeratu behar du.

Lehenengo kasuan, berak bere programaziotik ausaz ateratako hiru unitate didaktikoren edo ikaskuntza-egoeraren artetik aukeratu beharko du unitate didaktikoaren edo ikaskuntza-egoeraren edukia.

Bigarren kasuan, espezialitateko gai-zerrenda ofizialetik ausaz berak ateratako hiru gairen artean aukeratu beharko du unitate didaktikoaren edo ikaskuntza-egoeraren edukia.

Aurkeztutako programazio didaktikoak ez baditu gutxienez 9 unitate didaktiko edo ikaskuntza-egoera, aurreikusitako gainerako ondorioak ekartzeaz gain, izangaiak azaldu beharreko unitate didaktikoa edo ikaskuntza-egoera espezialitatearen gai-zerrenda ofizialetik abiatuta landu beharko du nahitaez, ausaz ateratako hiru gaietatik libreki aukeratutako baten gainean, ezinezkoa baita ezarritako moduan egitea unitate didaktikoen edo ikaskuntza-egoeren zozketa.

Unitate didaktikoa egitean, honako hauek zehaztu beharko dira, gutxienez: berarekin lortu nahi diren ikaskuntza-helburuak, edukiak, garatu beharreko konpetentziak, ikasgelan proposatuko diren irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak, ikasgelako edo beste ikaskuntza-espazio bateko metodologia eta antolamendua, ebaluazio-irizpideak eta adierazleak, eta ikasleen ebaluazio- eta jarraipen-prozedurak eta -tresnak.

Ikaskuntza-egoerei dagokienez, honako hauek zehaztu beharko dira: helburua, maila eta esparrua, abiapuntua, funtsezko konpetentziak, deskribatzaile operatiboak, gaitasun espezifikoak, ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak, ebaluazioa eta kalifikazioa (tresnak, baliabideak, ebidentziak, motak, eragileak, teknikak), oinarrizko jakintzak, faseak (hasierakoa, garapenekoa eta amaierakoa), jardueren eta zereginen sekuentziazioa, inplikatutako arloak/gaiak/eremuak, saioak, antolaketa (ikasleak, irakasleak, espazioak, denborak), metodologia, baliabideak, azken produkzioa.

Unitate didaktikoa edo ikaskuntza-egoera prestatzeko, izangaiak ordubete izango du. Ahozko azalpena prestatzeko eta azaltzeko (azalpen publikoa izango da), erakusketa horretan lagungarri izango zaion material osagarria erabili ahal izango du, baina berak jarri beharko du (ordenagailu eramangarria, telefono mugikorra eta abar). Interneterako konexioa baimenduko da, baina izangaiak berak jarri beharko ditu probaren zati hau garatu bitartean behar bezala funtzionatzeko behar diren baliabideak. Epaimahaia ezin izango da inola ere izan gailu horien funtzionamenduan gertatzen diren akatsen erantzule, eta ezin izango dizkie izangai guztiei eskuratu halako gailuak aukera-berdintasunaren berme osoarekin.

Era berean, gidoi bat erabili ahal izango du, gehienez ere folio batekoa, bi aldeetatik, eta hura amaitzean epaimahaiari entregatuko dio.

Izangaiak eskatuta, epaimahaiak ahozko azalpena grabatu ahal izango du, proba egoki baloratzen dela bermatzeko eta, hala badagokio, hautaketa-prozeduraren barruan jarduketak berrikusteko. Proba hasi aurretik egin beharko da eskaera.

Grabazioak konfidentzialak izango dira, hautaketa-prozesuaren espedientean sartuko dira eta ez dira zabalduko, eta prozesuari lotutako helburuetarako soilik erabiliko dira, bereziki erreklamazioak edo errekurtsoak berrikusteko, kontrolatzeko edo ebazteko, halakorik badago behintzat. Tratamendua eta kontserbazioa datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen araudiaren araberakoak izango dira, eta ezabatu egingo dira beharrezkoak izateari uzten diotenean.

Bigarren proba hau egiteari dagokionez, ordubeteko iraupena izango du gehienez, eta honela banatuko da:

– Programazio didaktikoaren aurkezpena eta ahozko defentsa, eta unitate didaktikoaren edo ikaskuntza-egoeraren ahozko azalpena: 50 minutuko gehieneko iraupena guztira. Aurrez emandako programazio didaktikoa epaimahaiaren aurrean aurkeztuz eta ahoz defendatuz hasiko da. Horretarako, izangaiek gehienez 20 minutu izango dituzte, eta epe hori ezin izango da inola ere gainditu. Gero, epaimahai beraren aurrean, eta gehienez 50 minutuko agerraldia egin arte, unitate didaktikoaren edo ikaskuntza-egoeraren ahozko azalpena egingo da, atal honetan bertan ezarritako baldintzetan. Izangaiak bere programazio didaktikoaren ahozko defentsan erabili duen denbora txikiagoa izan bada horretarako ezarritako 20 minutuko gehieneko denbora baino, gainerako guztia erabili ahal izango du, lehen zati horretan kontsumitu ez dena barne, gehienez ere 50 minutura arte, unitate didaktiko bat edo ikaskuntza-egoera bat azaltzeko.

– Izangaiak amaitu ondoren, epaimahaiak galderak egin ahal izango dizkio edo jarduketak planteatu azalpenaren edukiari edo ariketa praktikoari buruz, eta eztabaida hori ezingo da izan hamar minututik gorakoa.

6.1.3.– Ingeleseko espezialitateko proba guztiak dagokion hizkuntzan egingo dira.

6.2.– Oposizio fasearen garapena.

Oposizio fasearen proben hasiera Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren ebazpen baten bidez zehaztuko da, eta ezingo da izan 2027ko iraila baino lehen. Ebazpen hori Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko da.

Ariketa kolektiboetarako deialdia jaso dutenek azterketaren lekuan egon beharko dute, ezarritako orduan eta egunean. Ariketa horiek saio batean egingo dira, epaimahai bakoitzari esleitutako izangai guztiak bertan direla. Banakako ariketak egiteko, berriz, epaimahaiak jarduketak hasteko jarritako orduan egon beharko dute egun bakoitzerako deitutako pertsonek.

Epaimahaiek banakako ariketak egiten lehenengoak izango diren izangaien zitazioak iragarriko dituzte, bai eta egokitzat jotzen dituzten kontu guztiak ere, proba horiek egiten diren ikastetxeetako iragarki-tauletan. Halaber, dagokion epaimahaiaren iragarki-taulan argitaratuko dira, informazio-ondorioetarako, Interneteko helbide honetan: http://www.hezigunea.euskadi.eus/ («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2026ko EPE. Maisu-Maistren» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» (kidegoa eta espezialitatea hautatu beharko dira) – «Epaimahaiak – Oposiziogileari esleitutako epaimahaiaren zenbakia sakatu – Iragarki-taula».

Epaimahaien aurreko banakako jarduketak hasi ondoren, izangaiei hurrenez hurren deitzeko ere, proba horiek egiten diren ikastetxeetan argitaratu beharko dira deialdiak, probak hasi baino 72 ordu lehenago gutxienez. Halaber, informatzeko, argitaratu egingo dira, aipatutako Interneteko helbide horretan: http://www.hezigunea.euskadi.eus

Banakako probetan, hurrenkera alfabetikoki hasiko da, beraren abizena R letratik hasten den lehenengo izangaiarekin, Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2025eko urriaren 28ko Ebazpenaren arabera. Ebazpen horren bidez, argitara eman zen 2026-2027ko ikasturtean ordezkapenak egiteko hautagaiak kudeatzeko prozesuan –bai eta ikasturte horretan iragartzen den beste edozein hautaketa-prozesutan ere– ordena alfabetikoa zehaztuko duen letraren zozketaren emaitza.

Lehen abizena letra horretatik hasten den izangairik ez badute, epaimahaiek hurrengo letrarekin edo letrekin hasiko dute jarduketen hurrenkera. Epaimahaiek edozein unetan eskatu ahal izango diete izangaiei nor diren egiazta dezatela. Horretarako, NANa, jatorrizko herrialdeko antzeko agiria, pasaportea edo titularraren argazkia duen gidabaimena aurkeztu beharko dute.

Epaimahaiak egun eta modu egokian egindako deialdi edo zitazio batera ez agertzeko izangaiei gertatzen zaizkien ezinbesteko kasuak, halako kasurik badago behintzat, honela tratatuko dira:

– Lehenengo probaren bi zatiei dagozkien ariketa kolektiboak, behintzat, ezin izango dira aurreratu edo atzeratu izangai guztientzat jarritako eguna ez den beste batera, berdintasun-, objektibotasun- eta inpartzialtasun-arrazoiengatik.

– Era berean, gainerako izangaiek ariketa kolektiboa hasita, lehenengo probako B zatian zozketa egin ondoren edo A zatian ariketaren edukia jakinarazi ondoren, hurrenez hurren, ez da baimenik emango proba egiten ari den lekura sartzeko, atzerapenaren arrazoia edozein izanda ere.

– Hala ere, kasu jakin batzuetan, amatasunarekin, gaixotasun larriagatik ospitaleratzearekin, askatasun-gabetzearekin edo antzekoekin lotutako salbuespenezko kasuak gertatzen badira, gerora sortu badira, ukitutako pertsonaren borondatearekin zerikusirik ez badute eta behar besteko aurrerapenarekin dokumentu bidez behar bezala egiaztatu badira, hautaketa-batzordeak

edo dagokion epaimahaiak, zerbitzu juridikoei eta langileria kudeatzeko zerbitzuei kontsulta egin ondoren, ordezko mekanismoak aztertu eta ezarri ahal izango dituzte, gainerako izangaien eskubide legitimoei kalterik eragin gabe eta aukera-berdintasunaren funtsezko printzipioa hautsi gabe betiere. Gainerako egoeretan, berez ezin izango da egokitzapenik egin.

– Izangaiak epaimahaiaren aurrean banaka eta atal honetan bertan erabakitako izen-hurrenkeraren arabera jarri zaien egunean eta moduan agertu behar diren kasuetan, izangairen bati gerora sortutako ezinbesteko arrazoitzat har daitekeen zirkunstantziaren bat gertatzen bazaio, horren berri eman beharko zaio eta behar bezala egiaztatu beharko zaio epaimahaiari, agerraldirako jarritako eguna baino lehenago, ahalik eta lasterren. Egiaztatutako inguruabar zehatz horretan oinarrituta, zerbitzu juridikoei eta langileria kudeatzeko zerbitzuei kontsulta egin ondoren, epaimahaiak erabaki ahal izango du zitazio bat aurreratzea edo atzeratzea, egokiena denaren arabera.

Haurdun dauden emakumeek, erditzea eta ahozko ariketak aldi berean izatea aurreikusten badute, dagokion hautaketa-organoari jakinarazi ahal izango diote, medikuaren txosten ofiziala erantsita eta lehenbailehen. Jasotako informazioan oinarrituta, epaimahaiak izangaiak banaka egin behar duen agerraldia aurreratzea edo atzeratzea erabaki ahal izango du, kasuaren arabera, baina zitazio-egun berria ezin izango da aldatu, eta ezingo da jarri proba amaitzekoa den eguna baina geroago, hautaketa-prozesua ezarritako epeetan ebazteko gainerako izangaiek duten eskubideari kalte ez egiteko.

– Behar bezala deitutako izangai bat atzeratzen baldin bada bigarren probako ariketetan epaimahaiaren aurrean agertzeko jarri zaion orduan, alegatutako arrazoia edozein dela ere, azterketara berandu joan ahal izango da; baina, kasu horretan, puntuala izan balitz egongo litzatekeen puntu eta une berean egingo du, hau da, atzerapenaren denbora ezin izango da berreskuratu, ezarritako ordena errespetatzeko eta ondoren deitutako pertsonei kalterik ez eragiteko.

6.3.– Oposizio fasearen kalifikazioa.

Oposizio faseko probak kalifikatzeko, epaimahai bereko kide guztien eta espezialitate bereko epaimahai guztien irizpideak bateratzeko eta ebaluazioa ahalik eta objektiboena izateko, epaimahaiek kontuan hartuko dituzte V. eranskinean adierazten diren balorazio-irizpideak, bai eta hautaketa-batzordeak edo, hala badagokio, dagokion espezialitateko epaimahai bakarrak onartutako ebaluazio-errubriketan eta kalifikazio-orrietan duten zehaztapena ere.

Horretarako, eta horretarako legez aitortutako agintea, autonomia eta subiranotasuna erabiliz, dagokion hautaketa-organoak zehaztuko ditu, zozketatik ateratako gaien eduki zehatzaren eta berezko ezaugarrien arabera, bai eta espezialitate bakoitzerako berariaz proposatutako proba praktikoaren arabera ere, hala adierazleen, deskribatzaileen, errubriken, jarraibideen, argibideen eta gainerako kalifikazio-tresnen xehetasunak, nola atal edo azpiatal bakoitzerako aurreikusitako puntuazio zehatzenak, eta, hala badagokio, proba bakoitzaren barruan horiek duten pisua.

Tresna horien helburua honako hauek modu bereizian, objektiboan eta neurgarrian egiaztatzea izango da: alde batetik, ezagutza epistemologikoak, teknikoak, zientifikoak, akademikoak eta arauzkoak, irakatsi eta ikasteko prozesuaren alderdi psikopedagogikoak, antolamendu didaktikoko gaiak eta dagokion irakaskuntza-espezialitatearen berezko estrategia metodologikoak, eta, bestetik, lanbide-jardueran beharrezkoak diren irakasteko gaitasunak eta konpetentziak, barnean direla idatzizko eta ahozko komunikazio-konpetentzia, gizarte-trebetasunak, gatazken konponbide baketsua, aztertzeko gaitasuna eta zentzu kritiko eraikitzailea, ekimena eta sormena, erabakiak hartzea, esku-hartzeen plangintza, talde-lana eta sare-lana, berrikuntzarako eta etengabeko hobekuntzarako prestasuna, ikasleen aniztasunarekiko sentsibilitatea eta inklusibitatea, ikaskuntzen zeharkakotasuna eta hezkuntzaren funtzio soziala, besteak beste.

Ebaluazio- eta kalifikazio-dokumentu, -akordio eta -tresna guztiak horiek onartzen diren organoaren bilkura-aktari erantsi beharko zaizkio. Une horretatik aurrera, preskribatzaileak izango dira espezialitate bereko epaimahai eta kide guztientzat.

6.3.1.– Lehenengo proba (A eta B zatiak).

Proba hori 0tik 10 puntura kalifikatuko da, eta osatzen duten bi zatiei dagozkien kalifikazioak batzearen emaitza izango da. Probaren A eta B zatiak 0 eta 10 puntu bitartean kalifikatuko dira, honela haztatuta: A zatiak % 70eko pisua izango du, eta B zatiak % 30ekoa.

Proba hori gainditzeko, zati bakoitzean lortutako puntuazioak zati bakoitzari emandako puntuazioaren % 25 edo handiagoa izan beharko du, eta guztizko puntuazioak, bi zatien puntuazio haztatuak batuta, 5 puntu edo gehiago izan beharko du.

6.3.2.– Bigarren proba.

Proba hau 0 eta 10 puntu artean kalifikatuko da oro har, eta osatzen duten bi zatiei (A eta B) dagozkien kalifikazioak batzearen emaitza izango da, honela haztatuta: A zatiak % 30eko pisua izango du, eta B zatiak % 70ekoa.

Bigarren proba honen A zatia 0 punturekin kalifikatuko da, baldin eta epaimahaiak atzematen badu programazio didaktikoa ez datorrela bat honako baldintza hauetakoren batekin:

– Gutxienez 40 folioko eta gehienez 60 folioko luzera izatea.

– DIN-A4 formatuan egotea.

– Microsoft Office Word 2016 formatu digitalean edo handiagoan, Libre Office 6 edo handiagoan, edo babestu gabeko PDFan egotea.

– Alde bakarretik idatzita egotea.

– 9 unitate didaktiko edo ikaskuntza-egoera edukitzea gutxienez.

– Lortu nahi den kidegoaren berezko irakaskuntzetarako eta hezkuntza-mailetarako izatea.

– Etaparako, mailarako eta espezialitaterako indarrean dagoen curriculum ofizialari buruzkoa izatea.

– Espezialitatearen berezko arlo edo eremu bati buruzkoa izatea.

– Aurrez aurreko ikasturte akademiko oso bati dagokiona izatea.

Bigarren proba gainditzeko, izangaiek 5 puntu edo gehiagoko puntuazio global haztatua lortu beharko dute.

6.3.3.– Oposizio faseari dagokion kalifikazioa fase hori osatzen duten bi probetan lortutako puntuazioen batezbesteko aritmetikoa izango da, proba guztiak gainditu direnean.

Izangai bakoitzak ariketa bakoitzean lortutako puntuazioa kalkulatzeko, epaimahaian dauden kide guztien kalifikazioen batezbesteko aritmetikoa lortuko da. Epaimahaiko kideek emandako puntuazioen artean hiru puntu osoren edo gehiagoren aldea badago, automatikoki baztertuko dira gehieneko eta gutxieneko kalifikazioak, eta batez besteko puntuazioa gainerako kalifikazioen artean kalkulatuko da.

6.4.– Oposizio fasean lortutako kalifikazioak argitaratzea.

Proba bakoitza amaitu ondoren, jakinarazpenetarako, izangaiek lortutako kalifikazioen behin-behineko zerrendak jarriko dituzte epaimahaiek, egoitza duten ikastetxeetan; era berean, epaimahaiaren «Iragarki-taulan» kontsultatu ahal izango dira, Interneteko helbide honetan: http://www.hezigunea.euskadi.eus/ («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2026ko EPE. Maisu-Maistrak» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» (kidego eta espezialitatea aukeratu) – «Epaimahaiak» – Oposiziogileari esleitutako epaimahaiaren zenbakia sakatu – «Iragarki-taula».

Kalifikazio horien aurka, izangaiek erreklamazioa aurkeztu ahal izango diote dagokion epaimahaiari, argitaratu eta hurrengo egunetik hiru egun baliodun igaro baino lehen. Erreklamazio horiek dagokion epaimahaiburuari zuzendu behar zaizkio, eta online aurkeztu behar dira, aipatutako Interneteko helbidean: http://www.hezigunea.euskadi.eus/ («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu beharko dira).

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere berrogeita zortzi ordu igaro ondoren, epaimahaiek leku horietan jarriko dituzte lortutako kalifikazioen behin betiko zerrendak. Puntuazioak aldatu ez badira, erreklamazioak ezetsi egin direla pentsatu beharko da.

Gero, Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren ebazpen baten bidez, oposizio fasean guztira lortutako kalifikazioak argitaratuko dira –fase hori osatzen duten bi probetan lortutako puntuazioen batezbesteko aritmetikoa da– proba guztiak gainditu direnean. Interneteko helbide honetan egin ahal izango da kontsulta: http://www.hezigunea.euskadi.eus/ («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2026ko EPE. Maisu-Maistren» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – Kidegoa eta espezialitatea adierazi –«Emaitzak» – «Oposizioko nota» – «Alfabetikoa» / «Puntuen araberakoa».

Guztizko kalifikazio horien aurka ezin izango da errekurtsorik aurkeztu, eta interesdunek, hala badagokio, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu beharko dute deialdi honen 9.3.2 oinarrian aurreikusitako aginduaren aurka.

6.5.– Epaimahaiek oposizio fasea gainditu duten izangaiek lortutako puntuazioak emango dizkiote Hautaketa Batzordeari, batzorde horrek lehiaketa-aldiari dagozkion kalifikazioak gehi diezazkien, 8. oinarrian aipatzen den puntuazio orokorra lortzeko.

VII. KAPITULUA

LEHIAKETA FASEA

7.– Baremazioa eta puntuazioen publizitatea.

7.1.– Izangai bakoitzari dagokion puntuazioa Langileriaren Kudeaketako Zuzendaritzako administrazio-unitateek esleituko dute, epaimahaiek esleipen-lan hori eskuordetuta, etengabeko prestakuntzari dagokiona izan ezik (I. eranskineko III.1 apartatua).

Halaber, epaimahaiek batzorde barematzaileei eskuordetu ahal izango diete etengabeko prestakuntzari buruzko merezimenduen balorazioa.

7.2.– Eskabideak aurkezteko epea amaitu arte burututako merezimenduak baino ez dira barematuko.

7.3.– Lehiaketan lortutako puntuazioen publizitatea.

7.3.1.– I. eranskineko merezimenduak (Langileriaren Kudeaketako Zuzendaritzako unitateek baloratuak), etengabeko prestakuntza izan ezik.

Espezialitate guztietako izangaiek lortutako puntuazioen behin-behineko zerrenda hemen argitaratuko da:

https://hezigunea.euskadi.eus/ («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2026ko EPE. Maisu-Maistren» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – adierazi kidegoa eta espezialitatea – «Emaitzak» – «Lehiaketa fasea» – «Partziala».

Argitaratze-data espezialitate guztientzat bateratua izango da, eta aldez aurretik iragarriko da Hezkuntza Sailaren webguneetan (https://hezigunea.euskadi.eus/) eta (https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-langileak/). Era berean, SMSak bidaliko dira izangai bakoitzaren mugikorrera (eskabidean adierazia), informazioa emateko, eta argitaratze horren berri emango da.

Izangaiek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute behin-behineko zerrendaren aurka, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik hamar egun baliodun igaro baino lehen. Erreklamazio horiek Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketako zuzendariari zuzendu behar zaizkio, eta Interneteko helbide honetan aurkeztu beharko dira: https://hezigunea.euskadi.eus/ («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) – «Arlo pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2026ko EPE. Maisu-Maistren» – «Merezimenduak (UGP): erreklamazioak eta zuzenketak entregatzea».

Puntuazioen behin betiko zerrenda, erreklamazioak berrikusi ondoren, behin-behineko zerrenda bezala argitaratuko da.

Langileriaren Kudeaketako Zuzendaritzako unitateek esleitutako behin betiko puntuazioak epaimahaiei helaraziko zaizkie.

7.3.2.– Etengabeko prestakuntzari buruzko merezimenduak (epaimahaiek baloratuko dituzte, edo batzorde barematzaileek, zeregina eskuordetzen badiete).

Espezialitate bakoitzeko izangaiek lortutako puntuazioen behin-behineko zerrendak dagokion epaimahaiak argitaratuko ditu, «Iragarki-taula» honetan:

https://hezigunea.euskadi.eus/ («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2026ko EPE. Maisu-Maistren» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – adierazi kidegoa eta espezialitatea – «Epaimahaiak» – Oposiziogileari esleitutako epaimahaiaren zenbakia sakatu – «Iragarki-taula».

Izangaiek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute behin-behineko zerrenden aurka, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik hamar egun baliodun igaro baino lehen. Erreklamazio horiek dagokion espezialitateko epaimahaiko buruari zuzendu behar zaizkio, eta aipatutako Interneteko helbidearen bidez aurkeztu beharko dira: https://hezigunea.euskadi.eus/ («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – Administrazio-izapideak – «2026ko EPE. Maisu-Maistren» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – adierazi kidegoa eta espezialitatea.

Puntuazioen behin betiko zerrendak, erreklamazioak aztertu ondoren, behin-behineko zerrenden leku berberetan argitaratuko dira.

Behin-behineko eta behin betiko zerrendak epaimahai bakoitzak argitaratuko ditu, baremazio-lanak eta erreklamazioak berrikusteko lanak amaitu ondoren, kasuaren arabera. Argitalpen-data barematu beharreko parte-hartzaile kopuruaren araberakoa izango da; beraz, espezialitate bakoitzeko baremoa une desberdinetan argitaratu ahal izango da. Behin-behineko zerrenda eta behin betiko zerrenda argitaratzen diren unean, epaimahaiak SMSak bidaliko ditu izangai bakoitzaren mugikorrera (eskabidean adierazia), jakinaren gainean egon dadin, eta argitaratze horren berri emango du.

7.3.3.– Lehiaketa faseko behin betiko puntuazioen aurka ezin izango da errekurtsorik jarri, eta interesdunek, hala badagokio, dagokion errekurtsoa aurkeztu beharko dute 9.3.2 oinarrian aurreikusitako aginduaren aurka.

7.3.4.– Lehiaketa fasean lortutako kalifikazioa oposizio fasea gainditu duten izangaiei soilik aplikatuko zaie. Horregatik, oposizio fasea gainditu duten izangaien merezimenduen puntuazioak barematu eta argitaratuko dira bakarrik.

VIII. KAPITULUA

LEHIAKETA ETA OPOSIZIO FASEAK GAINDITZEA

8.– Lehiaketa eta oposizio faseetako puntuazioen haztapena eta puntuazio orokorra.

Puntuazio globala oposizio fasean eta lehiaketa fasean lortutako puntuazioen batura da, dagokion haztapena egin ondoren. Hala, puntuazio globala osatzeko haztapen hori 2/3 izango da oposizio faserako, eta 1/3 lehiaketa faserako.

9.– Izangaiak ordenatzea eta oposizio-lehiaketa gainditzea.

9.1.– Izangaiak ordenatzea.

9.1.1.– Hautaketa-batzordeek edo epaimahaiek, kasuaren arabera, fase bakoitzeko puntuazioak lortu eta haztatu ondoren, lehiaketa faseko puntuazioak gehituko dizkiete oposizio fasean lortutako puntuazioei, azken fase horretan eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu duten izangaien kasuan, eta ordenatu egingo dituzte txanda eta espezialitate bakoitzean, lortutako puntuazio orokorraren arabera.

9.1.2.– Ordenatzean berdinketarik gertatuz gero, irizpide hauei hurrenez hurren jarraituz ebatziko dira:

a) Puntuazio handiagoa izatea oposizio fasean.

b) Oposizio faseko ariketa bakoitzean puntuazio handiagoa izatea, ariketa horiek deialdi honetan agertzen diren hurrenkeraren arabera.

c) Lehiaketa faseko merezimenduen ataletan puntuazio handiagoa izatea, merezimendu horiek deialdi honetan agertzen diren hurrenkeraren arabera.

d) Lehiaketa faseko merezimenduen azpiataletan puntuazio handiagoa izatea, azpiatal horiek deialdi honetan agertzen diren hurrenkeraren arabera.

e) Berdinketak bere horretan irauten badu, lehen abizenaren ordena alfabetikoa, R letratik hasita, Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2025eko urriaren 28ko Ebazpenarekin bat etorriz. Ebazpen horren bidez, argitara eman zen 2026-2027ko ikasturtean ordezkapenak egiteko hautagaiak kudeatzeko prozesuan –bai eta ikasturte horretan zehar iragartzen diren beste edozein hautaketa-prozesutan ere– ordena alfabetikoa zehaztuko duen letraren zozketaren emaitza.

Emakumeen ordezkaritza % 40tik beherakoa den espezialitateetan, lehen abizenaren ordena alfabetikora jo beharrean, emakumeen lehentasuna erabiliko da berdinketa hausteko irizpide gisa, salbu eta beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituenean –nolanahi ere, ezaugarriok ez dute eragin behar sexuaren ziozko bereizkeriarik–; adibidez, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

9.2.– Hautaketa-prozesua gainditzea.

9.2.1.– Praktika fasera pasatzeko hautatuak izango dira, puntuazio orokorraren arabera ordenatuta, prozesu bakoitzean deitutako plazen guztizko kopuruaren berdina edo txikiagoa den ordena-zenbakia duten hautagaiak, aukeratzen duten txanda eta espezialitatearen arabera.

9.2.2.– Adierazitako jarduerak egin ondoren, hautaketa-batzordeek edo epaimahaiek, kasuaren arabera, hautatutako pertsonen behin-behineko zerrendak egingo dituzte, eta batera agertuko dira txanda librean eta desgaituentzako erreserban parte hartu dutenak; zerrendak Langileriaren Kudeaketako Zuzendaritzari helaraziko zaizkio.

Hautaketa-organoek, txanda irekian hautatutako pertsonen zerrendak egitean, desgaitasuna dutenentzat gordetako txandan bete gabe geratu diren plaza guztiak gehituko dizkiete hasieran txanda irekiari esleitutako plazei.

Hautaketa-organoek ezingo dute inola ere deklaratu espezialitate bakoitzean deitutako plazak baino izangai gehiago direla hautaketa-prozesua gainditu dutenak.

9.3.– Lehiaketa-oposizioa gainditu duten izangai hautatuen zerrendak argitaratzea.

9.3.1.– Langileriaren Kudeaketako zuzendariak ebazpena emango du hautatutako pertsonen behin-behineko zerrendak argitaratzeko, eta zerrenda horiek non erakutsiko diren adieraziko du.

Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren ebazpena eta behin-behineko zerrendak, interesdunei jakinarazteko, Interneteko helbide honetan argitaratuko dira: https://hezigunea.euskadi.eus/ («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz).

Behin-behineko zerrenda horien aurka, interesdunek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute zerrenda horietan akatsak daudela irizten badiote, argitaratu eta hurrengo egunetik 5 egun igaro baino lehen.

9.3.2.– Aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, hautatutako izangaien behin betiko zerrendak argitaratuko dira, Hezkuntzako sailburuaren agindu baten bidez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Hautatutako izangaien behin betiko zerrendak Interneteko helbide honetan argitaratuko dira interesdunei jakinarazteko: https://hezigunea.euskadi.eus/ («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz).

Agindu horren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Hezkuntzako sailburuari, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen.

9.3.3.– Espezialitate bakoitzean hautatutako izangaien behin betiko zerrendekin batera, hautatutako izangai ordezkoen zerrenda ordenatua egingo da, beste horrenbesteko kopurukoa, hautatutako izangairen batek hautatu-izaera hori galtzen badu ere honako arrazoi hauengatik:

– Langileriaren Kudeaketako Zuzendaritzan hautaketa-prozeduratik eratorritako eskubideei uko egitea hautatutako izangaien behin betiko zerrenda argitara ematen duen aginduan adierazten den eguna baino lehen.

– Errekurtsoak baiestea.

– 10. oinarrian eskatzen den dokumentazioa ez aurkeztea edo aurkezpenetik ondorioztatzea 2. oinarrian eskatzen diren baldintzetako bat ez duela betetzen.

Aipatutako hiru kasuetako bat gertatuz gero, hautatutako pertsonen zerrenda osagarri bat argitaratuko da, ordezkoen zerrendan agertzen den puntuazio-hurrenkeraren arabera, eta aipatutako inguruabarren ondorioz hutsik geratu diren plazak adina izangai hautatuko dira. Zerrenda osagarri berriak argitaratu ahal izango dira inguruabar horiengatik lanpostu huts berriak sortzen badira, egindako izendapenekin % 8ko bitartekotasun-tasaren gehieneko mugara iritsi arte.

9.4.– Hautapen-prozesuaren ondorioz plazaren bat edo batzuk hutsik geratzen badira inor hautatu ez delako edo hautagairik ez dagoelako, deklarazioak, hala badagokio, berekin ekarriko du, deialdi hau ebatzi ondoren, plaza hori edo horiek gerora antolatzen diren hautaketa-prozesuetako plazen kopurua handitzea.

10.– Hautatutako pertsonek egin beharreko jarduketak.

10.1.– Dokumentuak aurkeztea.

Hogei egun balioduneko epean, hautatutako pertsonen behin betiko zerrendak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, pertsona horiek dokumentu hauen kopia aurkeztu beharko dute, «Hautatuek dokumentazioa entregatzea» ereduarekin batera:

a) Indarrean dagoen Nortasun Agiri Nazionala, non eta ez duten berariazko baimena ematen Hezkuntza Sailak nortasun-datuak kontsultatzeko, nortasun-datuak egiaztatzeko sistema elektronikoen bidez.

Espainian bizi diren atzerriko izangaiek nortasun-agiriaren edo pasaportearen fotokopia aurkeztu beharko dute, bai eta Europar Batasuneko egoiliarraren indarreko txartela edo Europar Batasuneko egoiliarraren senidearena ere, edo, hala badagokio, Europar Batasuneko egoiliarraren edo mugako langile komunitarioaren aldi baterako indarreko txartela.

Europar Batasuneko beste estaturen bateko nazionalitatea duten izangaiek, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko tratatuen arabera langileen zirkulazio askea aplikatu behar zaien estaturen bateko nazionalitatea dutenek, nortasun-agiriaren edo pasaportearen fotokopia aurkeztu beharko dute Espainian bizi ez badira, atzerrian bizi direlako edo Espainian egonaldi-erregimenean daudelako.

Atzerriko izangaiek pasaportearen edo bisaren fotokopia aurkeztu beharko dute, eta, hala badagokio, txartela edo bisaren eta txartelaren salbuespena eskatu izanaren frogagiria, baldin eta Europar Batasuneko estatuetako nazionalen ezkontideak badira, edo Europar Batasunak sinatu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko tratatuen arabera langileen zirkulazio askea aplikatu behar zaion estaturen batekoak, eta zuzenbidez bananduta ez badaude, eta haien ondorengoak eta ezkontidearenak hogeita bat urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorako mendekoak badira. Dokumentu horiek eskatu ez badira, hauek aurkeztu beharko dira: batetik, agintaritza eskudunek eman duten eta ahaidetasun-lotura egiaztatzen duten dokumentuak, eta, bestetik, Europar Batasuneko nazionalitatea duen pertsonaren zinpeko aitorpena edo hitzematea edo Europar Batasunak sinatutako eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko tratatuen arabera langileen zirkulazio askea aplikatu behar zaion estaturen bateko herritarraren zinpeko aitorpena edo hitzematea, ahaidetasun-lotura hori duen pertsonarena, egiaztatzen duena ezkontidearengandik ez dagoela bananduta zuzenbidez eta, hala badagokio, izangaia haren kontura bizi dela edo kargura dagoela.

b) Zinpeko aitorpen bat edo hitzemate bat, hau adierazten duena: ez dutela kendu diziplina-espediente baten bidez inongo administrazio publikotako zerbitzutik, ez dagoela ezgaituta funtzio publikoak betetzeko eta ez dagoela sartuta Administrazio Publikoetan diharduten Langileen Bateraezintasunen abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako ezgaitasun eta bateraezintasunen inolako legezko kausatan.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek beren estatuan funtzio publikoan sartzea eragozten dien diziplina-zehapenik edo zigor penalik ez dutela adierazten duen zinpeko aitorpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute.

c) Kidegoan sartzeko eskatutako titulua, edo titulua lortzeko ikasketa guztiak gainditu izana eta titulua emateko eskubideak ordaindu izana egiaztatzen duen ziurtagiria. Hautaketa-prozesuan dagoeneko aurkeztu dutenek edo kontsulta egiteko berariazko baimena ematen dutenek ez dute aurkeztu beharko.

Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, homologazioa edo maisu-maistren lanbide arautuan sartzeko eta jarduteko lanbide-kualifikazioa aitortzen duen agiria erantsi beharko da.

d) Eskatutako hizkuntza-eskakizuna betetzen dela egiaztatzen duten tituluak edo ziurtagiriak, hauek izan ezik, baldin eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan jasota badaude: 2.5.1. oinarriko a), b), c), d), e), f), g), h) eta i) letretan aipatutakoak irakaskuntzako 2. hizkuntza-eskakizunerako. Era berean, ez da beharrezkoa izango aurretik aurkeztutako titulu edo ziurtagiririk aurkeztea, baldin eta adierazten bada zer unetan, zer prozeduratan eta zer organotan aurkeztu zen.

Prozesu honetan parte hartzeak esan nahi du Hezkuntza Sailak datu horiek kontsultatu ahal izango dituela Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan, parte-hartzaileak berariaz aurka egiten ez badio kontsulta horri.

2.1.f) oinarrian aurreikusitakoaren arabera hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko aldi baterako salbuespen-egoeran daudenek «Hautatuek dokumentazioa entregatzea» izeneko ereduan adierazi beharko dute egoera horretan daudela.

e) Desgaitasunen bat izatea baliatu duen izangaiak desgaitasun-maila aitortzeko, deklaratzeko eta kalifikatzeko eskumena duten organoen ziurtagiria aurkeztu beharko du, % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna duela adierazten duena, urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren arabera, edo Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak emandako ebazpena aurkeztu beharko du, ezintasun iraunkor osoa aitortzen diona irakaskuntzakoa ez den beste lanbide baterako.

Eskabideak aurkezteko hasierako epean aurkeztu badu, orain ez du aurkeztu behar.

f) 2.6 oinarrian aurreikusitako tituluak edo egiaztagiriak, Espainiako nazionalitatea ez duten eta hizkuntza ofizial gisa espainiera ez duten pertsonen kasuan.

g) Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketako Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa. Hala ere, ez dute aurkeztu beharko Hezkuntza Sailari datu hori elkarreragingarritasun-sistema elektronikoen bidez kontsultatzeko berariazko baimena eman diotenek, 3.1.3 oinarrian adierazitakoaren arabera.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek jatorrizko herrialdean halako delituengatik kondenarik ez dutela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

10.2.– Gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza batean emandako dokumentazio guztiarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako bateko itzulpen ofiziala aurkeztu beharko da, zinpeko itzultzaile batek egina edo dagokion kontsulatu edo bulego diplomatikoak baliozkotua.

10.3.– Eskatzen den dokumentazioa epearen barruan aurkezten ez dutenek –ezinbesteko kasuetakoak izan ezik–, edo aurkeztutako dokumentazioaren azterketaren arabera 2. oinarriko baldintzaren bat betetzen ez dutenek, eskubide guztiak galduko dituzte karrerako funtzionario izendatuak izateko, hargatik eragotzi gabe hasierako eskabideko faltsutzeengatik duketen erantzukizunari aurre egin behar izatea.

Kasu horietan, Langileriaren Kudeaketako Zuzendaritzak dagokion ebazpena emango du karrerako funtzionario izendatzeko eskubideak galdu direla adierazteko.

Ezinbesteko egoera batean dagoenak berehala jakinarazi beharko dio egoera Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketako zuzendariari, idatziz, zuzendaritza horrek balora dezan. Kode Zibilaren 1105. artikuluaren arabera, ezinbesteko kasuak aurreikusi ezin diren egoerak dira, edo aurreikusteko modukoak izan arren saihetsezinak direnak. Nolanahi ere, ezinbesteko kasuak ez du salbuetsiko baldintzak betetzetik; baina, hala badagokio, gainditu ahal izango da dokumentuak aurkezteko jarritako epe orokorra.

IX. KAPITULUA

PRAKTIKA FASEA

11.– Praktiketako funtzionario izendatzea.

11.1.– Hezkuntzako sailburuaren agindu baten bidez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, praktiketako funtzionario izendatuko dira praktikak egitetik salbuetsita ez dauden izangai hautatuak, bai eta, salbuetsita egonik ere, praktikak egitea aukeratu dutenak ere; kasu horretan, ez dira ebaluatuko.

11.2.– Praktika fasetik salbuesteak edo praktikak egiteko atzerapena lortzeak ez du aldaketarik eragingo gainerako izangaiei esleitutako lanpostuetan, ezta hautatutako pertsonen zerrendan ere.

11.3.– Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean irakasleen kidego batean karrerako funtzionario gisa gutxienez ikasturte batean zerbitzuak eman dituztela egiaztatzen duten izangai hautatuak salbuetsita egongo dira praktika fasea betetzetik. Kasu horretan, bi aukera izango dituzte: praktika fasea betetzea (ebaluaziotik salbuetsita), edo jatorrizko kidegoan jarraitzea karrerako funtzionario izendatuak izan arte. Idatziz egin beharko dute aukera hori, Langileriaren Kudeaketako zuzendariari zuzendutako eskabide baten bidez, hautatutako izangaien behin betiko zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik bost egun baliodun igaro baino lehen.

11.4.– Praktika fasea egiteko destinoak izangaiak hautatuak izan diren espezialitateko lanpostuetan esleitu behar zaie, edo espezialitate horren bidez lor daitezkeen beste lanpostu batzuetan, praktika fasea pasatu behar dutenei, hautaketa-prozesuan lortutako puntuazioaren arabera, edozein txandatan parte hartzen dela ere, eta ikasturtearen hasierako esleipen-prozesuan aurreikusitakoaren arabera.

11.5.– Praktika fasea egiteko lortutako destinoak behin-behinekoak izango dira eta 2028-2029ko ikasturtearen hasieran hasiko dira haietan lanean. Hautatutako pertsonek esleitutako destinoetan bete beharko dute praktika fasea, eta horietan sartzen ez direnek hautaketa-prozedurari uko egiten diotela pentsatuko da, salbu eta praktika fasea atzeratzea onartu bazaie edo behar bezala egiaztatutako arrazoiengatik ezinezkoa izan bazaie.

Bai praktiketako funtzionario izendatu dituzten izangai hautatuek eta bai praktika fasea betetzetik salbuetsita egonik ere beren jatorrizko kidegoetan jarraitzea aukeratu dutenek nahitaez parte hartu beharko dute plazak hornitzeko antolatzen diren ondoz ondoko lehiaketetan, harik eta Hezkuntza Sailak zuzenean kudeatutako ikastetxeetan eta hautatuak izan diren espezialitateko lanpostuetan edo espezialitate horren bidez eskura daitezkeen beste lanpostu batzuetan behin betiko lehen destinoa lortu arte.

12.– Praktika fasearen ezaugarriak eta ebaluazioa.

12.1.– Praktika fasearen helburua da hautatutako izangaiek irakasteko duten gaitasuna egiaztatzea. Praktika faseak ikasturte bat iraungo du, eta, oro har, zuzeneko irakaskuntzan gutxienez bi hereneko eguneko lanaldiarekin sei hilabete eman ondoren joko dira amaitutzat eta ebaluatu ahal izango dira.

Salbuespen gisa, behin praktiketako fasea hasita funtzionarioa aldi baterako ezintasun-egoeran, amatasun-, adopzio- edo harrera-baimena hartutako egoeran edo aurreikusi gabeko eta salbuespenezko beste egoera batean gertatzen bada eta horrek praktikaldi horren ohiko garapena eragozten badio –Kalifikazio Batzordeak baloratuko du egoera–, praktikaldiak gutxienez hiru hilabete eta egun batekoa izan beharko du, etenik gabea, eta eguneko lanaldiak, gutxienez, bi herenekoa. Hiru hilabete eta egun bateko epe horren barruan, ebaluazio bat behar den bezala egin ahal izateko, gutxienez 60 eguneko irakaskuntza zuzeneko egiazko zerbitzuak eman beharko dira ikasgelan edo hezkuntza-testuinguruan. Halakoetan, ikastetxeko ikuskatzailea bere irakaskuntza-jardunaren garapenaren saio batera joatea lehenetsiko da.

Kasu horietan, Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketako zuzendariari idazki bat igorri beharko zaio, bai eta behar diren egiaztagiriak ere, eta hark praktikak ebaluatzeko eratuko den Kalifikazio Batzordeari helaraziko dizkio, batzorde horrek kontuan har dezan azaldutako egoera, hala dagokionean, praktikak ebaluatzeko orduan eta zuzeneko egiazko irakaskuntzako gutxieneko zerbitzu-aldia betetzen dela kontrolatzeko orduan.

Beste alde batetik, 12.1 oinarri honen bigarren paragrafoan adierazitako eta Kalifikazio Batzordeak baloratu beharreko egoeraren batean daudelako eta horren ondorioz praktika fasea bete ezin dutelako beren praktika fasea atzeratu behar dutenek luzapen bakarra eskatu ahal izango dute hurrengo ikasturtera arte, urtebetekoa, Langileriaren Kudeaketako Zuzendaritzari idazki bat eta dagozkion egiaztagiriak bidalita, hautatutako izangaien behin betiko zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik bost egun baliodun igaro baino lehen. Langileriaren Kudeaketako zuzendariak dagokion ebazpena emango du, eskaera onartzeko edo atzera botatzeko. Geroratzea onartzen den ikasturtean, hautatutako pertsonak ez du inolako izendapenik edo loturarik izango Hezkuntza Sailarekin, eta hautatutako gainerako pertsonak baino ikasturte bat geroago izendatua izango da praktiketako funtzionario. Geroratze-epea igarota, praktikaldian hasten ez denak eskubide guztiak galduko ditu karrerako funtzionario izendatua izateko.

Praktika fasearen garapena Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpen baten bidez arautuko da, Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak eta Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak proposatuta.

Fase hau 2028-2029ko ikasturtearen hasieran hasiko da.

12.2.– Kalifikazio-batzordeek izendatutako irakasle esperientziadunen tutoretzapean garatuko da praktika fasea. Batzorde horien osaera, berriz, praktika fasea arautzen duen ebazpenean zehaztuko da.

12.3.– Praktika fasean, lanpostuan sartzeko jarduerak eta prestakuntza-jarduerak egin ahal izango dira, kalifikazio-batzordeek programatuak. Halaber, batzorde horiek azken txosten bat eskatu ahal izango diete izangaiei, izandako zailtasunak eta jasotako laguntzak baloratzeko.

12.4.– Praktika fasea amaitzean, izangai bakoitza «gai» edo «ezgai» gisa ebaluatuko da. Kalifikazio Batzordeak egingo du ebaluazio hori, lehen aipatutako ebazpenean ezarritako irizpideen arabera. Nolanahi ere, ebaluazioak kontuan hartuko ditu irakasle tutorearen, praktika fasea egin den ikastetxeko zuzendariaren, programatutako prestakuntza-jardueren arduradunen eta Hezkuntza Ikuskaritzaren txostenak.

Ezgai deklaratutako izangaiak praktiketako funtzionario gisa sartu beharko du ezgai deklaratu zuten ikasturtearen hurrengo ikasturtean, praktika fasea errepikatzeko, behin bakarrik.

Kidego eta espezialitate bereko hautaketa-prozesu baterako deialdia egin bada hurrengo urterako, hurrengo promozioko hautatutakoekin hasiko da lanean, eta, kasu horretan, sartzen den promozio berri horretan beraren espezialitatean hautatutako azken pertsonaren tokiaren ondokoa beteko du.

Lanean hasten ez direnek edo bigarrenez ezgai deklaratzen direnek eskubide guztiak galduko dituzte karrerako funtzionario izendatuak izateko. Deialdia egin duen agintaritzak deklaratuko du eskubide horiek galdu direla, ebazpen arrazoitu baten bidez.

12.5.– Ezarritako gutxieneko iraupena betetzen ez bada, kasuaren arabera, edo praktikaldia benetan egiteko ezarritako gainerako ordutegi-baldintzak, dedikazio-araubideko baldintzak edo espezialitatekoak betetzen ez badira, ezinezkoa izango da ebaluatzea, eta, ondorioz, praktiketako ikasturtea amaitzean ezgai kalifikazioa jarriko da ondorio guztietarako.

X. KAPITULUA

KARRERAKO FUNTZIONARIOAK

13.– Karrerako funtzionario izendatzea.

Praktika fasea amaitu ondoren, hautatutako pertsonek deialdi honetan ezarritako parte hartzeko baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituztela eta praktika fase hori gainditu dutela egiaztatu ondoren (fase hori egin behar izan ez denean edo ebaluaziotik salbuetsita dagoenean izan ezik), Hezkuntzako sailburuak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko du karrerako funtzionarioen izendapena. Izendapena 2029ko irailaren 1eko ondorioekin egingo da.

XI. KAPITULUA

ORDEZKOGAIEN ZERRENDAK

14.– Oposizio fasea gainditu dutenentzako ordezkapen-zerrendak irekitzea.

Oposizio fasea gainditu eta hautatu ez direnak irakasleen ordezkogaien zerrendan sartu ahal izango dira. Zerrenda hori Hezkuntzako sailburuaren 2026ko maiatzaren 11ko Aginduak arautzen du, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan aldi baterako irakasleen hautaketa eta kudeaketa arautzen baita.

Proba horiek gainditu dituzten espezialitateko zerrendan sartuko dira, 1. kidetasunarekin, lehendik zerrendan ez bazeuden behintzat.

Hautaketa-prozesuaren eskabidean aukera horren aurka agertu ez badira eta dagokion lan-eskaintza publikoaren deialdian parte hartzeko ezarritako baldintzak betetzen badituzte sartuko dira zerrendan.

Pertsona horiek hautaketa-prozesuan eskatzen diren baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute, eta lan egiteko zer lurraldea, lanaldi mota eta hizkuntza-eskakizuna aukeratzen dituzten adierazi horretarako ezartzen den epean.

Ukitutako pertsonek zerrenda ordenatu bat osatuko dute, hautaketa-prozesuan lortutako puntuazio globalaren arabera.

Gero, ordezkapenetarako hautagaien zerrendari baremoa berriro ezartzeko urteko prozesuan, hautaketa-prozesutik datorren zerrenda bereizia osatzen duten pertsonak zerrenda orokorrean sartuko dira.

15.– Puntuazioa ematea hautaketa-prozesuko oposizio fasea gainditzen dutenei.

Ordezkogaien zerrendan sartuta daudenek eta aurreko oinarriaren arabera sartuko direnek, deialdi honetako hautaketa-prozesuetako oposizio fasea gainditu badute baina hautatuak izan ez badira, gainditze horren bidez 2026ko maiatzaren 11ko Aginduaren I. eranskinean («Merezimenduen baremoa») 3. apartatuan ezarritako puntuazioa lortuko dute (6 puntu), baina behin bakarrik. Puntuazio hori ordezkogaien zerrendei baremoa berriro ezartzeko urteroko prozesuan aplikatuko da, izangaia sartuta dagoen espezialitateetan, oposizio fasea gainditu den espezialitateari dagokion taldearen barruan.

XII. KAPITULUA

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

16.– Datu pertsonalen tratamendua.

Parte-hartzaileek emandako datu pertsonalak hautaketa-prozedura honetan aurreikusitako helburuetarako baino ez dira erabiliko.

Datu horiek tratatu, eta Tratamendu Jardueren Erregistroan sartuko dira, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza arduradun duen «Hautaketa Prozesuak eta Hornidura» izeneko tratamendu-jardueran, prozedura hau kudeatzearen ondoriozko administrazio-izapideak egiteko eta aplikatzekoak diren legezko betebeharrak betetzeko behar den tratamendua emateko.

Datuen lagapenaren hartzaile izan daitezke, hala badagokio, Estatuko Administrazioko organo eskudunak, Euskal Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk, sindikatuak eta langileen batzordeak.

Interesdunek eskubidea dute datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko, bai eta beste eskubide batzuk ere. Webgune honetan kontsulta daitezke: https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/048000-capa1-eu.shtml

Datu pertsonalen tratamendua, hirugarrenentzako lagapena eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, eramateko eta haiei aurka egiteko eskubideak honako hauek arautzen dituzte: Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak (2018ko abenduaren 6ko BOE), Datuak Babesteko (EB) 2016/679 Erregelamendu Orokorrak eta aplikatzekoa den gainerako araudiak.

I. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA

TXANDA IREKIA ETA DESGAITASUNA DUTENENTZAT GORDETAKO TXANDA

Eskabideak aurkezteko epea amaitu arte hobetutako merezimenduei baino ez zaie baremoa ezarriko.

Izangaiek ezin izango dituzte lortu 10 puntu baino gehiago merezimenduen balorazioagatik.

Merezimenduak justifikatzeko, emandako dokumentazioa gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza batean badago, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batera egindako itzulpen ofiziala aurkeztu beharko da harekin batera, zinpeko itzultzaile batek egina edo dagokion kontsulatu edo bulego diplomatikoak baliozkotua.

Merezimenduak		Egiaztagiriak
I.– Aurretiko irakaskuntza-esperientzia (5,000 puntu gehienez)	Puntuak	
I.1.– Izangaiak eskatutako kidegoko espezialitateetako irakaskuntzan ikastetxe publikoetan izandako esperientzia-urte bakoitza. *Hilabete/urte-zati bakoitzeko, 0,0833 puntu gehituko dira.	1,000	Zerbitzuak eman diren Hezkuntza Administrazioko organo eskudunak ziurtatutako zerbitzu-orria. Honako datu hauek jaso behar ditu: zer egunetan jabetu zen lanpostuaz eta zer egunetan utzi zuen; kidegoa, eta espezialitatea. Halakorik ezean, lanpostuaz jabetzeko data jasotzen duten izendapenak, kidegoa eta espezialitatea, eta kargu-uztearen dokumentua. ** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko eta erkidego honetatik kanpoko ikastetxe publikoetan emandako zerbitzuak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude.
I.2.– Izangaiak lortu nahi duen kidegoaz besteko kidegoetako espezialitateetako irakaskuntzan ikastetxe publikoetan izandako esperientzia-urte bakoitza. * Hilabete/urte-zati bakoitzeko 0,0416 puntu gehituko dira.	0,500	
I.3.– Beste ikastetxe batzuetan irakaskuntza arautuei dagozkien espezialitateetako irakaskuntzan izangaiari dagokion kidegoaren hezkuntza-maila edo -etapa berean emandako esperientzia-urte bakoitza. * Hilabete/urte-zati bakoitzeko 0,0416 puntu gehituko dira.	0,500	Ikastetxeko zuzendariaren ziurtagiria, eranskin honen amaieran argitaratutako ereduaren araberakoa, bertan agertzen diren atal guztiei buruzko informazioa jasotzen duena, edo lan-kontratua, baldin eta informazio guztia jasotzen bada. Lan-harremana amaitu bada, kargu-uztearen dokumentua erantsi beharko da. Era berean, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak (GSDO) emandako ziurtagiria erantsi beharko da, zentroaren izena (enpresa) eta alta-aldiak (lan-bizitzaren txostena) jasotzen dituena. Udal musika-eskoletan emandako zerbitzuen kasuan, berariaz adierazi beharko da irakaskuntza arautuetan eman direla. ** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko eta erkidego honetatik kanpoko ikastetxe pribatuetan emandako zerbitzuak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota badaude. Salbuespen izango dira Lanbide Heziketako irakaskuntzetan emandako zerbitzuak; izan ere, kasu horretan, aurrez adierazitako eredua aurkeztu beharko da, emandako irakaskuntzak lortu nahi den irakasle-kidegoarekin bat datozen zehazteko.
I.4.– Beste ikastetxe batzuetan irakaskuntza arautuei dagozkien espezialitateetan izandako irakaskuntza-esperientziako urte bakoitza, izangaiak lortu nahi duen kidegoak emandakoaz bestelako hezkuntza-maila edo -etapakoak badira. * Hilabete/urte-zati bakoitzeko 0,0208 puntu gehituko dira.	0,250	

Oharrak:

I.a) Atal honen ondorioetarako, gehienez ere bost urte hartuko dira kontuan, eta horietako bakoitza aurreko azpiataletako batean bakarrik baloratuko da. Zerbitzuak ikastetxe batean baino gehiagotan aldi berean eman badira, puntuazioak ezin izango dira metatu.

I.b) I.1 eta I.2 azpiatalen ondorioetarako, ikastetxe publikotzat hartzen dira hezkuntza-administrazioek sortu eta sostengatutako ikastetxeen sare publikoan integratutako ikastetxeak (Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren IV. tituluko II. kapituluak aipatzen ditu, eta abenduaren 2ko 3/2020 Lege Organikoak aldatu zuen), eta ez udalen, aldundien edo zuzenbide publikoko beste entitate batzuen mende daudenak.

I.c) Irakaskuntzako esperientzia-urtetzat hartuko da ikasturte osoan izendapen jarraitua izatea, edo, bestela, ikasturte berean egindako jarduera-aldiak bederatzi hilabetekoak edo gehiagokoak izatea.

Hilabete osotzat hartuko dira hogeita hamar zerbitzu-egun, jarraituak izan edo ez.

I.d) Atzerrian emandako zerbitzuak herrialde bakoitzeko hezkuntza-administrazioek edo organo eskudunek emandako ziurtagirien bidez egiaztatu behar dira. Ziurtagiri horietan honako hauek adierazi behar dira: zerbitzuan emandako denbora, ikastetxe publikoa edo pribatua den, hezkuntza-maila eta emandako jakintzagaia. Ziurtagiri horiek zinpeko itzulpenarekin aurkeztu beharko dira. Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak txosten osagarriak eskatu ahal izango ditu aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna egiaztatzeko.

I.e) Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Legean (Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak eta abenduaren 2ko 3/2020 Lege Organikoak aldatua) araututako kidegoek dagozkien irakaskuntzetan emandako zerbitzuak bakarrik baloratuko dira.

Ez dira baloratuko:

– Unibertsitate publiko edo pribatuetan irakaskuntzan izandako esperientzia.

– Haur-eskola publiko edo pribatuetan hezitzaile gisa izandako esperientzia (0-3 urteko zikloa).

– Elkarrizketa-laguntzaile gisa izandako esperientzia.

– Prestakuntza-jarduera osagarrien monitore gisa egindako jarduera.

I.f) Irakaskuntza arautuak bakarrik zenbatuko dira.

<table>
<tr><th colspan="2">Merezimenduak</th><th></th><th>Egiaztagiriak</th></tr>
<tr><td colspan="2">II.– Prestakuntza akademikoa
(5,000 puntu gehienez)</td><td>Puntuak</td><td></td></tr>
<tr><td colspan="4">II.1.– Kidegoan sartzeko alegatutako tituluari dagokion espediente akademikoa</td></tr>
<tr><td colspan="2">Espediente akademikoaren batez besteko nota honela baloratuko da</td><td></td><td rowspan="4">Ziurtagiri akademiko pertsonala, alegatutako titulua lortzeko eskatzen diren irakasgai eta ikasturte guztietan lortutako puntuazioak jasotzen dituena, eta batez besteko nota berariaz adierazita.
** Ofizioz zenbatuko da espediente akademikoaren batez besteko nota, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota badago.</td></tr>
<tr><td>Notak 0-10 eskalan</td><td>Notak 0-4 eskalan</td><td></td></tr>
<tr><td>6,00tik (ongi) 7,49ra (oso ongi)</td><td>1,50etik 2,24ra</td><td>1,000</td></tr>
<tr><td>7,50etik (bikain) 10era (ohorezko matrikula)</td><td>2,25etik 4ra</td><td>1,500</td></tr>
<tr><td colspan="4">II.2.– Graduondokoak, doktoregoa eta aparteko sariak</td></tr>
<tr><td colspan="2">II.2.1.– Ikasketa aurreratuak egiaztatzen dituen ziurtagiri-diploma (apirilaren 30eko 778/1998 Errege Dekretua), Master Titulu Ofiziala (urtarrilaren 21eko 56/2005 Errege Dekretuaren, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren edo abuztuaren 5eko 1002/2010 Errege Dekretuaren arabera lortua), ikertzeko nahikotasuna edo baliokidea den beste edozein agiri, baldin eta irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko baldintza ez badira.</td><td>1,000</td><td rowspan="2">Dagokion ziurtagiria edo titulua edo, hala badagokio, emateko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria.
** Ofizioz zenbatuko da doktore-titulua, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota badago.</td></tr>
<tr><td colspan="2">II.2.2.– Doktore-titulua izatea, baldin eta irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko baldintza gisa alegatu ez bada.</td><td>1,000</td></tr>
<tr><td colspan="2">II.2.3.– Doktoretzan aparteko saria lortzeagatik.</td><td>0,500</td><td>Dagokion egiaztagiria.</td></tr>
</table>

Merezimenduak		Egiaztagiriak
II.– Prestakuntza akademikoa (5,000 puntu gehienez)	Puntuak	
II.3.– Beste unibertsitate-titulu ofizial batzuk (irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko betekizun gisa alegatzen ez badira)		
II.3.1.– Lehen zikloko titulazioak: Diplomatura, ingeniaritza tekniko, arkitektura tekniko edo legez baliokidetzat jotako titulu bakoitza, eta lizentzia, arkitektura edo ingeniaritzaren lehen zikloari dagozkion ikasketak. Ez dira inola ere baloratuko atal honetarako izaera horretako titulu edo ikasketak, baldin eta izangaiak aurkezten duen lizentzia, ingeniaritza edo arkitekturako lehen titulua lortzeko gainditu behar izan badira.	1,000	Kidegoan sartzeko alegatutako titulua eta merezimendu gisa aurkeztutakoak edo, hala badagokio, titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria. Lizentzia, arkitektura edo ingeniaritza baten lehen zikloari dagozkion ikasketak baloratzeko, ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da, eta bertan berariaz adierazi beharko da ziklo horri dagozkion irakasgai edo kreditu guztiak gainditu direla. ** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota dauden diplomaturak, ingeniaritza teknikoak, arkitektura teknikoak, lizentziak, ingeniaritzak, arkitekturak eta graduak.
II.3.2.– Bigarren zikloko titulazioak: Lizentzia, ingeniaritza edo arkitekturako bigarren zikloari dagozkion ikasketak, edo ondorio guztietarako legez baliokidetzat jotzen diren tituluak. Halaber, atal honetan gradu-titulua baloratuko da. Ez dira inola ere baloratuko izangaiak aurkezten duen lizentziadun, ingeniari edo arkitektoaren lehen titulua lortzeko gainditu beharreko ikasketak (lehen zikloa, bigarren zikloa edo, hala badagokio, irakaskuntza osagarriak).	1,000	
II.4.– Araubide Bereziko Irakaskuntzen eta Berariazko Lanbide Heziketaren titulazioak		
HEOek, Musika Kontserbatorio Profesionalek eta Goi Mailakoek eta Arte Eskolek emandako Araubide Bereziko Irakaskuntzen titulazioak, bai eta Berariazko Lanbide Heziketarenak ere, irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko betekizun gisa alegatu ez badira edo alegatutako titulua lortzeko beharrezkoak izan ez badira, honela baloratuko dira: a) Musika- edo dantza-titulu profesional bakoitzeko. b) HEOko maila aurreratuko (C1 edo C2) edo baliokideko ziurtagiri bakoitzeko. c) Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikari titulu bakoitzeko. d) Lanbide Heziketako goi-mailako teknikariaren titulu bakoitzeko. e) Kirol-teknikariaren goi-mailako titulu bakoitzeko.	0,500 0,500 0,200 0,200 0,200	a), c), d) eta e) azpiatalerako, titulua, edo titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da. b) azpiatalerako, ziurtagiri akademikoaren edo tituluaren/ziurtagiriaren fotokopia edo titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria aurkeztu beharko da. ** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan dauden ziurtagiri edo tituluak.
II.5.– Atzerriko hizkuntzak jakitea		
Atzerriko hizkuntza baten ezagutza-ziurtagiriak, atzerriko hizkuntza batean C1 edo C2 maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenak, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren sailkapenaren arabera. Ziurtagiri horiek maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuaren eranskinean zerrendatuta daude (Hezkuntzako sailburuaren 2022ko ekainaren 16ko Aginduaren bidez eguneratua)	0,500	Ziurtagiri akademikoaren edo tituluaren/ziurtagiriaren fotokopia edo titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria aurkeztu beharko da. ** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan dauden ziurtagiri edo tituluak.

Oharrak:

II.1.– Kidegoan sartzeko alegatutako tituluari dagokion espediente akademikoa.

II.1.a) Eskabidean berariaz alegatzen den tituluaren batez besteko nota baloratuko da.

II.1.b) Ziurtagirietan, alegatutako titulua lortzeko eskatzen diren irakasgai eta ikasturte guztietan lortutako puntuazioen batez besteko nota adierazi beharko da.

II.1.c) Ziurtagiri akademiko pertsonalean kalifikazio literala eta zenbakizkoa agertzen badira batez besteko nota gisa, azken hori hartuko da kontuan.

II.1.d) Titulua atzerrian lortu duten izangaiek, ikasketa-espedientea baloratuko bazaie, SETa (Tituluaren Europako Gehigarria) edo titulua lortu zuten herrialdeko hezkuntza-administrazioak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Ziurtagiri horretan, karreran lortutako kalifikazioetatik ateratako batez besteko nota adierazi behar da, eta, gainera, dagokion sistema akademikoaren arabera lor daitekeen gehieneko eta gutxieneko kalifikazioa adierazi beharko da, Espainiako kalifikazio-sistemarekin baliokidea den zehazteko. Gainera, atzerriko ikastetxeetan egindako unibertsitate-espediente akademikoen batez besteko notaren baliokidetasun-adierazpena ere aurkeztu beharko dute, zeina doan lortu ahal izango baita, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren egoitza elektronikoan, Unibertsitate Politikako Zuzendaritza Nagusiaren 2016ko martxoaren 21eko eta 2016ko uztailaren 21eko ebazpenetan xedatutakoaren arabera, bai eta haien ondorengo eguneratzeetan —bereziki, 2017ko irailaren 18ko Ebazpenean— xedatutakoaren arabera ere.

II.1.e) Titulu gisa bigarren zikloa bakarrik duen titulazio bat alegatzen bada, beharrezkoa izango da titulu horren eta ziklo horretan sartzeko egin den lehen zikloko titulazioaren ziurtagiri akademikoa aurkeztea. Espedienteko batez besteko nota bi titulazioen batezbestekoa izango da.

II.1.f) Titulu gisa aurreko ikasketa-plan bateko beste titulazio baten bidez lortutako graduko titulazio bat alegatzen bada, ikasketa berberei buruzkoa, gainditutako irakasgai guztien batez besteko nota jasotzen duen graduko ziurtagiri akademiko pertsonala aurkeztu beharko da (gradu-ikasketetara sartzeko erabiltzen den aurreko titulazioarena barne), edo, hala badagokio, bi titulazioen ziurtagiri akademikoa. Azken kasu horretan, espedienteko batez besteko nota bi titulazioen batezbestekoa izango da. Kalkulu hori bera egingo da bien batez besteko nota Langileen Erregistroan agertzen bada.

II.2.– Graduondokoak, doktoregoa eta aparteko sariak

II.2.a) Ez dira II.2 atalean baloratuko graduondoko ikastaroak, espezializaziokoak, unibertsitate-aditukoak, ezta bestelako unibertsitate-titulu ez-ofizialak ere (berezko tituluak), baldin eta unibertsitateek beren autonomia erabiliz ematen badituzte urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren lehen xedapen gehigarrian xedatutakoaren babesean.

II.2.b) Ez da baloratuko irakasle-lanbidean jarduteko gaitzen duen unibertsitate-masterraren titulu ofiziala.

II.2.c) II.2.2 atalean, doktore-titulua izatea baloratuko da; beraz, doktorego-titulu bakarra baloratuko da.

II.2.d) Azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretuan xedatutakoaren babesean emandako titulu ofizialen Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko mailekiko baliokidetasun-aitorpenak ez dira baloratuko.

II.2.e) Titulazioak atzerrian lortu badira, dagokion homologazioa aurkeztu beharko da, urriaren 18ko 889/2022 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera, edo, bestela, lanbide-kualifikazioaren aitorpena, ekainaren 9ko 581/2017 Errege Dekretuan ezarritakoaren babesean.

II.3.– Beste unibertsitate-titulu ofizial batzuk.

II.3.a) Lizentziadun, ingeniari edo arkitekto titulua –ez, baina, sartzeko baldintza gisa alegatzen dena– merezimendu gisa aurkezteak II.3.2 atalean bigarren zikloko titulazio horri dagokion

puntuazioa aitortzea ekarriko du soilik, ikasketa horiei dagozkien irakasgai guztiak gainditu direla egiaztatzen duen lehen zikloko ikasketen ziurtagiria aurkezten denean izan ezik, II.3.1 atalean xedatutakoaren arabera baloratzeko (aipatutako ataletan adierazitako salbuespenak alde batera utzi gabe).

II.3.b) Titulazioak atzerrian lortu badira, dagokion homologazioa aurkeztu beharko da, urriaren 18ko 889/2022 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera, edo, bestela, lanbide-kualifikazioaren aitorpena, ekainaren 9ko 581/2017 Errege Dekretuan ezarritakoaren babesean.

II.3.c) Egokitzapen-ikastaroa gainditzea ez da titulazio baten lehen zikloa gainditutzat joko.

II.3.d) Ez dira titulu desberdintzat hartuko titulazio berean oinarritzen diren espezialitateak.

II.3.e) Gradu-titulu berari dagozkion aipamenak ez dira inola ere zenbatuko gradu-titulu independente gisa.

II.3.f) Gradu bikoitzeko titulazio bat gainditu izana merezimendu gisa alegatzen denean, titulazio bakoitzari dagokion puntuazioa emango da.

II.3.g) II.3.2 atalarekin baloratuko dira Musika, Dantza eta Arte Dramatikoko goi-mailako tituluak, bai eta gradu-tituluarekiko baliokidetasuna aitortu zaien arte-irakaskuntzetako goi-mailako tituluak ere.

II.3.h) Azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretuan edo hura ordeztu duen araudian xedatutakoaren babesean emandako titulu ofizialen Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko mailekiko baliokidetasun-aitorpenak ez dira baloratuko.

II.3.i) Bigarren zikloko titulu bat aurkeztuz gero, II.3.2 atalean soilik aitortuko da bigarren zikloko titulazio horri dagokion puntuazioa, salbu eta lehen zikloko ikasketen ziurtagiri akademikoa aurkezten bada, ikasketa horiei dagozkien irakasgai guztiak gainditu direla egiaztatzen duena, II.3.1 atalean xedatutakoaren arabera baloratzeko (aipatutako ataletan adierazitako salbuespenak alde batera utzi gabe).

II.4.– eta II.5.– Hizkuntzak.

II.4.a) II.4.b) apartatuan aipatzen den HEOko maila aurreratua bat dator maiatzaren 21eko 80/2019 Dekretuan (2019/06/26ko EHAA, 120. zk.) ezarritako C1 maila aurreratuko eta C2 maila aurreratuko ziurtagiriekin.

II.4.b) Hizkuntza beraren C1 edo C2 maila aurreratuko ziurtagiriak, II.4 edo II.5 atalaren arabera egiaztatuak, behin bakarrik baloratuko dira atal batean edo bestean.

Era berean, atal horietan hizkuntza berean hizkuntza-gaitasuna egiaztatzen duten maila desberdinen ziurtagiri bat baino gehiago aurkezten direnean baloratzeko, maila altuagokoa bakarrik baloratuko da.

II.4.c) Euskara hizkuntza koofizialaren kasuan, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila aurreratua baino handiagoa den euskararen ezagutza egiaztatzea baloratuko da II.4 eta II.5 ataletan (HEOek edo Hezkuntzako sailburuaren 2022ko ekainaren 16ko Aginduan adierazitako beste organismo batzuek egiaztatutakoaren arabera).

Merezimenduak		Egiaztagiriak
III.– Beste merezimendu batzuk (Gehienez 2,000 puntu)	Puntuak	
III.1.– Etengabeko prestakuntza		
Hezkuntza-administrazioek edo unibertsitateek deituta gainditutako etengabeko prestakuntzako eta hobekuntzako ikastaro bakoitzeko, edo hezkuntza-administrazioekin lankidetzan diharduten entitateek antolatutako etengabeko prestakuntzako planaren barruko jarduera bakoitzeko, edo dagokion hezkuntza-administrazioak aitortutako jarduera bakoitzeko: a) Gutxienez 3 kreditu b) Gutxienez 10 kreditu. Horiek guztiek lotura izan beharko dute lortu nahi den espezialitatearekin edo eskola-antolamenduarekin, hezkuntzari aplikatutako teknologia berriekin, didaktikarekin, psikopedagogiarekin, hezkuntzaren soziologiarekin, hezkidetzarekin edo aniztasunari emandako erantzunarekin. (*) Azpiatal honen ondorioetarako, gutxienez bi kredituko ikastaroak metatu ahal izango dira, atal honetan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte. Horretarako, metaketa hori gutxienez bi kredituko eta hiru baino gutxiagoko ikasturte guztietarako egingo da, eta metaketa horren emaitza dagokion azpiatalera eramango da.	0,2000 0,5000	Dagokion organismoak edo ikastetxeak emandako egiaztagiria, berariaz adierazten duena ikastaroak zenbat kreditu dituen edo zenbat ordu iraun duen. Ziurtagiri hori aurkezten ez bada, ez da puntuaziorik lortuko atal honetan. Etengabeko prestakuntza-planean jasotako edo Hezkuntza Administrazioak onartutako jardueretarako, berariaz jaso beharko da jarduera hori aipatutako planean sartuta dagoela edo Hezkuntza Administrazioak onartuta dagoela. ** Ofizioz zenbatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak antolatutako ikastaroak, bai eta sail horren etengabeko prestakuntza-planean sartutako edo hark onartutako jarduerak ere, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude.
III.2.– Gorputz Hezkuntzako espezialitaterako bakarrik. Uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuaren arabera "goi-mailako kirolari" kalifikazioa izatea.	0,4000	Organismo eskudunaren ziurtagiria, berariaz «Goi Mailako Kirolari» kalifikazioa jasotzen duena.

Oharrak:

III.1.– Etengabeko prestakuntza.

III.1.a) Ikastaroak edo jarduerak ordutan adierazita badaude, hamar orduko kreditu bat dela iritziko zaio. Izangairen batek ECTS (European Credit Transfer System) kredituetan prestatzeko ikastaro edo jardueraren bat aurkezten badu, dagokion ziurtagiriarekin batera kreditu horien baliokidetasuna aurkeztu beharko du, dagokion unibertsitatearen edo hezkuntza-administrazioaren erabakiaren arabera.

III.1.b) Ez dira inola ere baloratuko titulu akademikoa, masterra, doktoregoa edo graduondoko beste tituluren bat lortzeko helburua duten ikastaroak edo irakasgaiak. Era berean, ez dira baloratuko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako irakasle-lanbideetan aritzeko gaitzen duen Espezializazio Didaktikoaren Titulua, Gaitasun Pedagogikoaren Ziurtagiria edo Masterraren Titulu Ofiziala lortzeko ikastaroak edo jarduerak.

III.1.c) Egiazta daitezkeen beste master batzuk, urtarrilaren 21eko 56/2005 Errege Dekretuan, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuan edo abuztuaren 5eko 1002/2010 Errege Dekretuan araututa ez daudenak, III.1 azpiatalean baloratu ahal izango dira.

III.1.d) Ez dira sartu berrikuntza- eta esperimentazio-proiektuak; beraz, ez dira baloratu behar.

III.1.e) Izangaiak parte-hartzaile edo laguntzaile gisa parte hartu duen prestakuntza-jarduerak soilik hartuko dira kontuan; ez dira kontuan hartuko izangaiak irakasle, txostengile, koordinatzaile edo tutore gisa parte hartu badu.

III.1.f) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak emandako Berrikuntza eta Prestakuntza Jardueren Ziurtagirian prestakuntza-jarduera bat jasotzeak ez du esan

nahi jarduera hori automatikoki merezimendutzat hartzen denik deialdi honetarako, eta hori III.1 azpiatalean aurreikusitako baldintzen arabera zehaztu beharko da.

III.1.g) Unibertsitateek deitutako ikastaroak unibertsitateek emandako ziurtagiri ofizialen bidez egiaztatu beharko dira.

Ez dira unibertsitateek deitutako ikastarotzat hartuko hezkuntzan eskumenik ez duten erakunde pribatu edo publikoek antolatu dituzten eta unibertsitate baten babesa edo lankidetza besterik ez duten ikastaroak.

Udako unibertsitateen prestakuntza-jarduerak haietara unibertsitate batek deitu badu bakarrik baloratuko dira.

III.1.h) Ez dira inola ere kontuan hartuko ikastetxeek berek beren autonomia pedagogikoa baliatuz zuzenean garatutako prestakuntza-jarduerak.

III.1.i) Iraupena ordutan edo kreditutan adierazten ez duten ziurtagiriak ez dira baloratuko, nahiz eta egun edo hilabete horietan agertu.

III.1.j) Ikastaro bat baino gehiago egiteko aldiak osorik edo zati batean bat badatoz, bietako bat bakarrik hartuko da kontuan, mesedegarriena.

ZIURTAGIRIA

AURRETIKO IRAKASKUNTZA-ESPERIENTZIA (I. ERANSKINEKO I.3 ETA I.4 AZPIATALAK)

Nik, _____ jaunak/andreak (NANa: _____),

_____ ikastetxeko zuzendaria naizen aldetik

(IFZa: _____, helbidea _____),

ZIURTATZEN DUT:

_____ jaunak/andreak (NANa: _____)

zentro honetan lan egin zuen / lan egiten du:

Irakaskuntza-maila (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa)	Espezialitatea/irakasgaia/modulua. Lanbide Heziketaren kasuan, zehaztu emandako modulu profesionalak.	Hasiera-data	Amaiera-data

_____(e)n, _____(e)ko _____aren _____ (e)(a)n

Sinadura: Ikastetxeko zuzendaria

II. ERANSKINA

CURRICULUMAK

HAUR HEZKUNTZA

– 95/2022 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, Haur Hezkuntzako antolamendua eta gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituena (2022-02-02ko BOE).

– 75/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Haur Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa (2023-06-09ko EHAA).

LEHEN HEZKUNTZA

– 157/2022 Errege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Lehen Hezkuntzaren antolamendua eta gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituena (2022-03-02ko BOE).

– 77/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa (2023-06-09ko EHAA).

III. ERANSKINA

GAI-ZERRENDAK

ESPEZIALITATEA: LEHEN HEZKUNTZA.

Martxoaren 12ko ECI/592/2007 Aginduaren eranskina. Agindu horren bidez, otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuak arautzen duen maisu-maistren kidegoko Lehen Hezkuntzako espezialitatean espezialitate berrietan sartzeko, horra iristeko eta espezialitate berriak eskuratzeko prozeduran jarraitu beharreko gai-zerrenda onartzen da.

(2007ko martxoaren 15eko BOE).

Oharra:

– Curriculumarekin zerikusia duten edukiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean indarrean dagoen curriculumari lotuta daudela ulertu behar da.

– 7. gaiko natura-, gizarte- eta kultura-ingurunearen jakintza-arloari buruzko aipamena Natura Zientzien eta Gizarte Zientzien arlo guztiei buruzkoa dela ulertu behar da.

– 11. gaian herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza aipatzen denean, balio zibikoak eta etikoak eta herritartasunari eta giza eskubideei erreferentzia egiten dieten zeharkako konpetentziak aipatzen direla ulertu behar da.

Gai-zerrenda horri 6 gai hauek gehitu behar zaizkio:

26.– Euskal Hizkuntza eta Literaturaren arloa Lehen Hezkuntzan: ikuspegia eta ezaugarriak. Helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak.

27.– Euskarazko oinarrizko trebetasunak garatzea: entzumena, irakurmena, ahozko adierazpena eta idatzizko adierazpena. Ikasteko metodoak eta estrategiak. Ahozko eta idatzizko testuak ulertzeko eta osatzeko teknikak eta estrategiak.

28.– Euskal literatura eskola-testuinguruan. Lehen Hezkuntzan aplikatutako literatura-adierazpen garrantzitsuenak: haur-literatura, herri-literatura eta literatura garaikidea. Eskolako liburutegia baliabide didaktiko gisa literatura-hezkuntzan.

29.– Natura- eta gizarte-ingurunearen ezagutza. Vasconiaren dimentsio soziokulturala: euskararen komunitatea eta oinarrizko ezaugarri kulturalak.

30.– Vasconiaren etapak eta gertaera historikoak. Gertakari horiei buruzko ahozko dokumentuak, dokumentu idatziak eta aztarna materialak.

31.– Kultura eta artea Vasconiaren adierazpen kultural gisa. Folklorea eta haren aplikazio didaktikoak. Musika-zatien eta beste artelan batzuen eta euskal kulturakoen hautaketa.

ESPEZIALITATEAK: HAUR HEZKUNTZA, INGELESA, HEZIKETA FISIKOA, MUSIKA, HEZKUNTZA BEREZIA: PEDAGOGIA TERAPEUTIKOA ETA HEZKUNTZA BEREZIA: ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA.

1993ko irailaren 9ko Aginduaren I. eranskina. Agindu horren bidez onartu ziren ekainaren 4ko 850/1993 Errege Dekretuak araututako maisu-maistren, bigarren hezkuntzako irakasleen eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoetako espezialitate jakin batzuetan sartzeko, espezialitate berriak eskuratzeko eta mugitzeko prozeduretako gai-zerrendak.

(1993ko irailaren 21eko BOE).

Oharra:

– Curriculumarekin zerikusia duten edukiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean indarrean dagoen curriculumari lotuta daudela ulertu behar da.

– Hezkuntza berezia - Pedagogia terapeutikoa: Hezkuntza bereziari buruzko 2. gaiaren enuntziatuan LOGSE aipatzen denean, ulertu behar da indarrean dagoen Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aipatzen dela.

– Hezkuntza berezia – Entzumena eta hizkuntza: Entzumenari eta hizkuntzari buruzko 2. gaiaren enuntziatuan LOGSE aipatzen denean, ulertu behar da indarrean dagoen Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aipatzen dela.

IV. ERANSKINA

PROBA PRAKTIKOAREN EZAUGARRIAK

Proba honen bidez, zera egiaztatu nahi da: izangaiek prestakuntza zientifiko nahikoa dutela aukeratzen duten espezialitatean eta, batez ere, dagokion irakasle-kidegoari legez egotz dakizkiokeen irakaskuntza, etapa eta mailetako talde batean edo ikasgela batean irakasteko behar diren trebetasun teknikoak eta irakaskuntza-konpetentziak erabiltzen badakitela.

Behar izanez gero, behar besteko aurrerapenaz emango zaie izangaiei honako hauen berri: bitarteko teknikoak, dokumentazioa, erabili beharreko materiala eta ariketak egiteko beste alderdi zehatz batzuk.

Izangaiei kasu praktiko bat proposatu ahal izango zaie, honako hauekin zerikusia duena: beren espezialitateko gai-zerrenda, eskabideak aurkezteko epea amaitzean indarrean dauden curriculumak edo ikasleekiko irakaskuntza-praktika. Eta honako hauek sar daitezke, besteak beste: esku hartzeko planak; analisi-ariketak; testu-iruzkinak; dokumentu edo irudikapen artistikoak; itzulpen-ariketak; problemak eta kasuak ebaztea; simulazioak; berezko dituzten trebetasun tekniko edo instrumentalak erakustea, eta ikasgelaren edo ikastetxearen benetako ingurune batean praktikan jar daitezkeen benetako egoerekin lotutako proiektu didaktiko zehatzak formulatu eta garatzea.

Hori guztia, horretarako legez eskumena duen organoak –epaimahai bakarrak edo hautaketa-batzordeak– ezartzen dituen irizpideen eta erabakiaren arabera, deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera eta dagokion kidegoaren eta espezialitate zehatzaren ezaugarri espezifikoen arabera.

Hezkuntzako esku-hartzearekin lotutako gairen bat planteatzen den kasuetan, dagokionaren arabera, honako hauek jaso beharko dira: egoeraren analisia eta hasierako diagnostikoa; proposatutako ikaskuntzak behar bezala testuinguruan jartzea curriculumaren barruan (eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean indarrean dagoena); aurreikusitako ikaskuntza-proposamenei ekiteko beharrezkoak diren aurretiazko ezagutzak edo konpetentziak; arlo, gai, eremu bereko edo beste batzuetako edukiekiko erlazioa; testuinguru jakin batean jarduteko edo ikasteko egoera bat izateko proposamen bat planifikatzea eta diseinatzea; hezkuntza-araudia eta haurrak eta nerabeak babesteari buruzkoa aplikatzea; inklusibitatearen eta ikasleen aniztasunari erantzutearen printzipioen aplikazioa (gaitasun handiak, hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak, HPB hezkuntza-premia bereziak eta euskal hezkuntza-sisteman berandu sartu diren ikasleak barne); estrategia eta baliabide didaktikoak hautatzea; teknologia berriak irakaskuntza-ikaskuntzaren eta digitalizazioaren prozesuan integratzea; funtsezko konpetentziak eta konpetentzia espezifikoak garatzea; irteera-profilean sartutako konpetentzia giltzarriak eta espezifikoak garatzea, edo dena delako lanbide-profilaren berezko konpetentzia-unitateei lotutako amaiera-gaitasunak garatzea; eskaerak aurkezteko epea amaitzean indarrean dauden curriculum-dekretuetako eredu pedagogikoa eta printzipio metodologikoak aplikatzea (DUA ikaskuntzako diseinu unibertsala barne), baita Hezkuntza Sailak ezarritako lehentasunezko ildo estrategikoen helburuak ere (STEAM estrategia, BIZIKASI, Irakurketa Plana, Aniztasunarekiko Erantzuna, Bikaintasuna eta Ekitatea, Hezkidetza, eskola-jazarpenaren prebentzioa, suizidioaren, eskola-absentismoaren eta abarren prebentzioa); kasu jakin batzuetarako indarrean dauden jarduera-protokoloak erabiltzea, zerikusia dutenak ikaskuntzarako eskola-giro onarekin eta ikasleen ongizatearekin; diziplinartekotasuna; koordinazio didaktiko eta pedagogikoa; ikastetxearen dinamikako eta eskola-antolamenduko inplikazio eta parte-hartze aktiboa; ikasleen tutoretza eta orientazioa familiekin lankidetzan egitea; hezkuntza- eta gizarte-eragileen arteko baterako esku-hartzeak; gatazkak modu baketsuan konpontzea; ikasleen eskubide eta betebeharrak; hizkuntzen tratamendu integratua eta komunikazio-gaitasun eleaniztuna; banakako jarraipena; prestakuntza-ebaluazioa; ikaskuntzak edo Hezkuntzaren gizarte-funtzioa, besteak beste.

Era berean, espezialitateko gai-zerrenda ofizialarekin, eskabideak aurkezteko epea amaitzean indarrean dauden curriculumekin edo dagokion espezialitateak esleituak dituen etapa eta mailekin zerikusia duten gai, problema, ariketa eta kasu praktikoak ebazteko eskatu ahal izango da.

Atzerriko hizkuntza batean dagoen testu bat itzultzeko ariketak planteatzen diren kasuetan, horiek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetara itzuli ahal izango dira (gaztelaniara edo euskarara), izangai bakoitzak nahi duenera. Itzulpenak hiztegiarekin edo hiztegirik gabe egin ahal izango dira, dagokion epaimahaiak aurrez erabakitzen duenaren arabera.

Musikaren espezialitatean, konposizio- eta/edo interpretazio-proba bat egitea proposatu ahal izango da.

Probak izaera mistoa ere izan dezake; aipatutako ariketa mota bakar bat edo batzuk sartu ahal izango dira, bai eta ariketa didaktikoren bat ere, ikasleei espezialitatearen curriculumean jasotako gaitasunak eskuratzea, helburuak lortzea edo jakintzak eta edukiak ulertzea eta ikastea erraztuko dieten prozedurak islatuko dituena, baita ikasgaiaren edo espezialitatearen berezko alderdi teknikoak ere.

Proposatutako proba praktikoak osorik edo zati batean unitate didaktiko bat edo ikaskuntza-egoera bat diseinatzea edo egitea barne hartzen badu, kasu bakoitzean aplikatu beharreko curriculum-dekretuetan ezarritako egiturara eta elementuetara egokitu beharko dira, 6.1.2 oinarrian deskribatzen diren moduan.

Nolanahi ere, probak berekin ekarriko du espezialitateko gai-zerrendarekin edo eskabideak aurkezteko epea amaitzean indarrean dauden curriculumekin lotutako kontzeptuen aplikazio praktikoa. Ebazpena ematerakoan, kasu bakoitzerako egokienak diren hezkuntza-printzipioak eta irakaskuntza-teknikak hartu beharko dira kontuan, indarrean dauden araudira eta curriculumera egokituta, bai eta irakaskuntza-jardunari, curriculum-dekretuetan ezarritako irakaskuntza-profilari, berezkoak dituzten konpetentzia profesional, pertsonal edo sozialetako edozeini edo funtzio publikoaren deontologia- eta jokabide-kodeari legez esleitutako eginkizunetara egokituta ere.

V. ERANSKINA

OPOSIZIO FASEKO PROBAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Agindu honetan xedatutakoaren arabera, legez hautaketa-batzordeei eta epaimahaiei dagokie, kasuaren arabera, oposizio fasea osatzen duten probak baloratzeko irizpide hauetan behar diren zehaztapenak eta egokitzapenak ezartzea eta behin betiko onartzea, zozketaren edo hautaketa-organo horiek espezialitate bakoitzerako proposatzen duten proba praktiko espezifikoaren ondoriozko gaien edukiaren eta ezaugarrien arabera batez ere, eta haiei dagokie, halaber, adierazle, atal, azpiatal, item edo antzeko bakoitzari eslei dakizkiokeen puntuazio zehatzen pisua zehaztea ere.

KOMUNIKAZIO-GAITASUNA.

Komunikazio- edo hizkuntza-gaitasuna funtsezko konpetentzia da irakaskuntza-funtzioa betetzeko, eta, beraz, proba guztietan baloratuko da, idatzizkoetan zein ahozkoetan:

– Ideiak modu zuzen, argi, zehatz, logiko eta koherentean adierazi beharko dira, bai eta espezialitatearen, hezkuntza- eta curriculum-araudiaren edo kasuan kasuko gaiaren berezko terminologia behar bezala erabili ere.

– Hizkuntzaren ortografia- eta gramatika-arauak zuzen erabiltzea eskatuko da, bai eta komunikazio-egoera zehatzari eta hartzaileei egokitutako hizkuntza-erregistroa izatea ere, eta diskurtso-egitura egokia izatea, bai idatzizko testuan, bai ahozko azalpenean.

Idatzizko probetan boligrafo urdina edo beltza bakarrik erabili ahal izango da. Ezin da erabili ez zuzentzailerik ez eta tinta ezabagarria duen boligraforik ere: ezabatu behar dena lerro bakarrarekin ezabatuko da eta parentesi artean itxiko da.

Ez da kontuan hartuko idatzizko proba egiteko epaimahaiak berariaz emandako orriez bestelako orrietako edukirik proba egiten den unean eta lekuan. Ez eta zikin, hondatuta edo bertako edukiaz kanpoko ohar eta markekin entregatzen diren orrietakoa ere.

Otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren 10.1.h) artikuluan xedatutakoa betez, idatzizko ariketak guztiz era anonimoan zuzendu eta baloratuko direla bermatzeko, erabat baliogabetuko da idatzizko ariketa, baldin eta orri batean edo gehiagotan izenak, markak edo izangaia edozein modutan identifikatzeko balio dezakeen edozein seinale badago.

PROBA PRAKTIKOA.

5.7.2.b) eta 5.7.2.c) oinarrietan xedatutakoaren arabera, legez espezialitate bakoitzeko hautaketa-batzordeari dagokio (edo epaimahai bakarrari, hala badagokio) ariketa praktikoaren proposamen zehatza diseinatzea eta dagozkion ebaluazio- eta kalifikazio-irizpideak eta -tresnak onartzea. Eginkizun hori betetzean, IV. eranskinean ezarritako ezaugarriak ere hartuko dira kontuan, bertan jasotzen diren proba mota posibleen artean proposatzen den proba motaren arabera.

Proba honen eredua edozein dela ere, ikastetxeetan irakaskuntzako funtzio publikoa betetzeko berezko irakaskuntza-ikaskuntza prozesu errealetan dituen inplikazio didaktikoak aipatu beharko dira.

Balorazioa eta kalifikazioa egitean, egindako proposamen zehatzaren arabera dagokionaren arabera, honako hauek ere hartuko dira kontuan, proposatutako ariketen azken emaitza ez ezik: jarraitutako prozedura; erakutsitako trebetasun instrumental eta teknikoak; azalpenaren argitasuna eta egituraketa; lanaren antolamendua; denboraren kudeaketa; ikasleen ezaugarri espezifikoetara egokitzea; Hezkuntza Sailaren orientabide metodologikoetara eta lehentasunezko ildo estrategikoetara egokitzea; arau-esparruari eta eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean indarrean dauden curriculumei atxikitzea (hala badagokio, printzipio metodologikoak, irteerako konpetentzia-profilak, profil profesionalak, konpetentzia-unitateak eta abar barne); kasu bakoitzerako ezarritako jarduera-protokoloen erabilera; ikasle adingabeen babesa; diziplinartekotasuna eta esparru eta proiektuen

araberako lana; koordinazio didaktikoa; berrikuntzarako ekimena eta prestasuna; tutoretza eta orientazioa gauzatzea familiekin lankidetzan; hizkuntzen tratamendu integratua; beste hezkuntza- eta gizarte-eragile batzuekin batera esku hartzea; ikasleen eskubide eta betebeharren errespetuan oinarritutako bizikidetza eta eskola-giroa; hezkuntza-laguntzako premia espezifikoen eta hezkuntza-premia berezien tratamendua; prestakuntza-ebaluazioa eta etengabeko ebaluazioa; estrategia metodologiko askotariko eta egokiak hautatzea; hezkuntza-plangintza eta ikastetxearen barne-araudia, eta abar. Oro har, IV. eranskinean aipatutako edozein alderdi (proba praktikoaren ezaugarriak), proposaturiko proba praktiko espezifikoari egoki izan dakiokeena, proba proposatzen duen hautaketa-organoaren irizpidearen arabera.

Kasu bakoitzean egokiena denaren arabera, honako hauek hartuko dira kontuan:

– Espezialitatearen zehaztasun teknikoa eta ezagutza zientifikoa.

Proba egitean espezialitateari buruzko ezagutza zientifiko eguneratua eta zorrotza aplikatzea.

– Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean indarrean dagoen hezkuntza-araudia ezagutzea eta proposatutako kasuaren garapenean aplikatzea.

Planteatutako kasu praktiko zehatzaren arabera, euskal hezkuntza-sistemako araudiaren eta curriculumen ezagutza eta aplikazio praktikoa, euskal hezkuntza-sistemako lehentasunezko hezkuntza-ildoak eta helburuak, adingabetasunari eta ikastetxeei aplikatu beharreko legeria orokorra eta espezifikoa, irakasleei legez esleitutako funtzioak, ikasleen eta haien familien eskubideak, inklusibitateari heltzea eta aniztasunari erantzutea, eleaniztasuna, hizkuntzen tratamendu integratua eta irakurketa-konpetentzia hobetzera bideratutako estrategiak, STEAM pentsamendu-estrategiak, hezkuntzako esku-hartzearen plangintza eta irakasleen koordinazioa, ikasleekiko eta familiekiko tutoretza, eskolako bizikidetza eta giroa, hezkuntza- eta gizarte-eragileen arteko lankidetza, diziplinartekotasuna, metodologia aktiboak, proiektukako lana, ikaskuntza-egoerak, lan kooperatiboa, funtsezko konpetentziak eta konpetentzia espezifikoak garatzera bideratutako ikaskuntza-proposamenak, ebaluazio etengabea eta hezigarria, Europako nazioarteko helburu eta programak, egoera pertsonal eta harreman jakin batzuetan nola jokatu jakiteko protokolo espezifikoak, sareko lana, informazio- eta komunikazio-teknologiak eta digitalizazio-prozesuak txertatzea, hezkuntza-berrikuntzako proiektuak…

– Hezkuntzako esku-hartzeak garatzean, egokienaren arabera, honako hauek hartuko dira kontuan:

• Planteamendu didaktikoak eta antolakuntzakoak, zientzia-, curriculum- eta pedagogia-ezagutza fidagarrietan oinarrituak, eguneratuak eta koherenteak direnak eskabideak aurkezteko epea amaitzean indarrean dauden curriculum-dekretuetan jasotako eredu pedagogikoarekin eta printzipio metodologikoekin.

• Plangintza egokia. Testuinguruan jartzea. Diagnostikoa. Kasurako egokiak, zehatzak, egingarriak eta errealistak diren ikaskuntza-helburuak definitzea. Helburuek curriculum-gaitasunak (giltzarriak eta espezifikoak) garatzeko egiten duten ekarpena. Ikasleen aniztasunari egokitutako helburuak, gaitasun handiei dagozkienak barne.

• Oinarrizko jakintzak behar bezala definitzea eta edukiak sekuentziatzea. Arlo/ikasgai/eremu bereko edo beste batzuetako edukiekiko erlazioa. Ebaluazio-irizpideak, adierazleak eta deskribatzaile operatiboak, etengabeko prestakuntza-ebaluaziorako tresnak eta prozedurak...

• Kokapen egokia curriculumean. Proposatutako ikasleen curriculum-mailari eta ezaugarriei egokitutako esku-hartze proposamena. Ikaskuntza berriei ekiteko beharrezkoak diren funtsezko konpetentziak eta konpetentzia espezifikoak eta oinarrizko jakintzak identifikatzea. Aldez aurreko kontzeptuak eta motibazio-kontzeptuak lantzea, esanguratsuak izan daitezen

eta ikaskuntza berriak ulertzen eta etapako irteera-profilera iristeko oinarrizko gaitasunen maila progresiboak garatzen laguntzeko.

• Hezkuntzako esku-hartzea. Metodologia. Curriculumeko metodologia- eta pedagogia-printzipioei atxikitzea. Ikasleen hezkuntza-planteamenduak eta -erronkak, estrategia eta teknika didaktiko espezifikoak, curriculum-, antolamendu- eta metodologia-egokitzapenak eta -moldaketak..., ikasle guztien gaitasunak ahalik eta gehien garatzera bideratuak. Ikaskuntzen zeharkakotasuna, globaltasuna eta diziplinartekotasuna. Hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak, hezkuntza-premia bereziak eta/edo gaitasun handiak dituzten ikasleei arreta emateko jarduketa zehatzak.

• Garatu beharreko helburu, eduki eta gaitasunekin koherenteak diren irakatsi eta ikasteko jarduerak proposatzea, proposatutako metodologiarekin bat etorriz. Askotarikoak eta motibatzaileak. Ikasleen ezaugarrietara egokitutako sekuentziazioa eta mailaketa. Berdinen arteko interakzioa eta talde-lana eta sare-lana bultzatzen dituzte. Aniztasunari emandako erantzuna integratzea. Gaitasunak garatzera bideratzea (lan kooperatiboa, ikaskuntza-egoerak, proiektuak, erronkak...). Autonomia, autorregulazioa eta ikasten ikasteko gaitasuna sustatzea. Handitzeko eta/edo sakontzeko jarduerak. Hainbat arlo/gai/modulutako edukiak biltzen dituzten jarduerak, konplexutasun-maila desberdinetako trebetasun kognitiboak eskatzen dituztenak (aplikazioa-analisiak-laburpenak-ebaluazioa-sorkuntza).

• Estrategia eta baliabide didaktikoak: estrategia eta baliabide didaktikoak behar bezala hautatzea, teknologia berriak eta ikaskuntzen digitalizazioa integratzea, ikasleen motibazioa eta inplikazio aktiboa sustatzeko estrategiak, espazioak eta denborak antolatzea, taldekatzeak, ikasgela kudeatzeko eta bizikidetza positiborako estrategiak (gatazkak modu baketsuan konpontzea barne), ikasleen jarduera autonomoa eta kooperatiboa erraztuko duten askotariko material motibatzaileak hautatzea... horiek guztiak inklusibitatearen printzipioarekin eta aniztasunaren tratamenduarekin bat datoz DUA esparruan.

• Ebaluazio-prozesua: ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak, ikaskuntzaren emaitzak, konpetentzia-mailak edo deskribatzaile operatiboak behar bezala definitzea, kasuaren arabera, planteatutako mailari dagozkion helburuekin, gaitasun-mailekin, jakintzekin, edukiekin eta jarduerekin bat etorriz eta ikasleen aniztasuna kontuan hartuta. Ikasleen abiapuntuko egoera, aurretiko trebetasunen eta ezagutzen diagnostikoa eta gaitasunen garapen-maila identifikatzeko estrategiak (hasierako ebaluazio diagnostikoa). Ikasleen ebaluazioa eta jarraipena egiteko estrategiak, prozedurak eta tresnak, ebaluazioaren prestakuntza-funtzioarekin bat datozenak. Etengabeko ebaluaziorako prozedurak. Gaitasunen ebaluazioa, prestakuntzakoa, etengabea eta irteera-profilei, konpetentzia-unitateei edo lorpen-gaitasunen mailei buruzkoa. Kalifikazio-irizpideak. Ebaluatzeko eta kalifikatzeko mekanismoak, tresnak eta jarduerak aurreikustea, ikasleek eskuratutako ikaskuntzak baloratzeko, bai eta jarraipena egiteko, indartzeko, sakontzeko eta zabaltzeko ere.

• Irakasleak koordinatzeko prozedurak. Diziplinartekotasuna. Ikaskuntza-egoerak, hainbat arlo/ikasgai/eremu/moduluren baterako esku-hartzearekin. Koordinazio didaktikoa eta metodologikoa.

• Norberaren irakaskuntza-jarduna eta irakatsi eta ikasteko prozesuak ebaluatzeko prozedurak.

– Espezialitateko trebetasun teknikoak menderatzea, baita ikasgelako testuinguru errealera egokitutako estrategia eta teknika didaktiko-pedagogikoak ere. Dagokion espezialitatearen berezko eta berariazko estrategiak, erremintak, tresnak, protokoloak eta prozedurak erabiltzeko trebetasun teknikoa izatea. Proposatutako egoeretara egokitutako estrategia teknikoak eta/edo metodologikoak mobilizatzea: diagnostikoa, informazio-bilketa, interpretazioa eta analisia, plangintza, antolaketa, garapena, jarraipena, ebaluazioa, ondorioak eta horietatik eratorritako jardunak. Kritika- eta analisi-gaitasuna, erabakiak hartzeko ekimena. Ikasgela kudeatzeko eta

irakatsi eta ikasteko prozesua garatzeko zailtasunak ebazteko irakaskuntzako konpetentzia profesionala. Malgutasuna eta egokitzeko gaitasuna. Erresilientzia eta proaktibitatea. Ikaskuntzetan ikasleen autonomia eta prestakuntza-garapen integrala errazten duen irakaskuntza-rola.

– Planteatutako ariketetan, emaitzak eta ariketaren erantzunak behar bezala ebaztea. Kasuaren arabera, ebazteko aplikatutako esparru teorikoa justifikatzea, datu esplizituak eta inplizituak identifikatzea, behar bezala arrazoitutako eta justifikatutako ebazpen-estrategiak lantzea, marrazkiak, eskemak, emaitzak unitate egokiekin erabiltzea, lortutako emaitzen analisi kritikoa, erantzun arrazoituak eta oinarrituak. Arrazoinamenduak, kalkuluak, grafikoak, marrazkiak edo bestelako azalpen-elementuak ongi hartuko dira ariketak baloratzean.

– Gaiak eta/edo problemak eta/edo ariketak eta/edo kasu praktikoak ebaztean, emaitza zuzena zein ebazpen-estrategia, prozesuaren arrazoiketa eta erantzunen interpretazioa baloratu eta ebaluatuko dira.

– Testuen itzulpenetan, itzulpenaren zuzentasuna baloratuko da, bai eta itzulpenaren benetako komunikazio-helburura eta erregistro zehatzera egokitzea ere.

– Testu-iruzkinetan, kontuan hartuko dira egituraren identifikazioa, elementuen koherentzia eta kohesioa, gramatika-egokitasuna eta zuzentasuna, eta ondorioen koherentzia. Bibliografia edo webgrafia aipa daiteke, azalpena arrazoitzeko edo laguntzeko.

– Originaltasuna, estrategia-aniztasuna, sormena, berrikuntzarako prestasuna...

GAI BATEN IDATZIZKO GARAPENA.

Honako hauek hartuko dira kontuan:

– Gaiaren egitura:

• Sarrera: gaiaren garrantziaren justifikazioa.

• Garatzen diren puntuen aurkibide bat sartzea.

• Ordena logikoa azalpenaren egituran: planteamendua, garapena eta ondorioak. Gaiaren antolaketa argia aurkeztea, errazago ulertzeko. Edukiak garatzean, atalen eta azpiatalen sekuentziazio logikoa eta argia.

• Gai osoa aztertzea. Dagokion gaiaren epigrafe guztiak eta funtsezko puntuak modu orekatuan garatzea.

– Gaiaren ezagutza zientifiko-akademikoa:

• Diziplinaren eduki epistemologikoa menderatzea. Eduki zientifiko-teoriko eta akademiko egokia.

• Kaudimena. Ezagutza zientifiko eguneratua eta zorrotza. Heldutasuna garapenean. Azaldutako kontzeptuen zehaztasuna eta zuzenketa. Tesi eta argudioen sakontasuna eta zorroztasuna.

• Garatutako gaiari aplikatu beharreko araudia ezagutzea eta erlazionatzea, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean indarrean dagoena.

• Gai teorikoa irakaskuntza-jardunarekin lotzea.

• Kontzeptuzko akatsik ez egitea edo eragiketen, arazoen, erakustaldien eta abarren garapenean akatsik ez egitea.

• Adibideak ematea; ezagutzaren integrazio pertsonala, eta norberak egina. Banakako hausnarketa.

• Gaiarekin lotutako planteamendu edo iritzi zientifiko kualifikatuei erreferentzia egitea. Iturri eguneratuak menderatzea.

• Erreferentzia egokiak, eguneratuak eta historikoak, hala badagokio. Bibliografia eta/edo webgrafia.

• Informazioa eta kontzeptuak zehaztasunez, zorroztasunez eta eguneratuta planteatzea. Tesi eta argudioen sakontasuna. Datu esanguratsuak eta garrantzitsuak.

• Zehaztasuna eta laburtzeko gaitasuna.

– Hizkuntza-gaitasuna:

• Espezialitatearen edo lanbide-eremuaren berezko terminologia erabiltzea.

• Azalpenaren argitasuna. Jariotasuna, egokitasuna, zuzentasuna, koherentzia eta diskurtsoen kohesioa.

• Zuzentasun ortografikoa, sintaktikoa, gramatikala eta estilistikoa.

• Hizkuntzaren erregistro egokia, testu motaren, probaren mailaren, komunikazio-testuinguruaren eta hartzailearen araberakoa.

– Planteamenduaren originaltasuna:

• Sormena. Norberaren hausnarketa eta lanketa, ekarpen pertsonalak, adibideak, ondorio egokiak, arrazoiketa indibidualak...

• Iturrien eta iritzien aniztasuna aipatzea. Horien kaudimena, kualifikazioa eta eguneratzea.

PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA.

Programazio didaktikoa baloratzean, honako hauek hartuko dira kontuan, dagokionaren arabera:

– Deialdiko betekizunetara egokitzea (6.1.2. eta 6.1.3 oinarriak):

• Irakaskuntza, etapa eta hezkuntza-maila bateko ikasturte oso bati dagokio, eta, ikasturte horretan, irakasleen kidegoko eta aukeratutako espezialitateko irakasleek irakasteko eskumena dute.

• Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean indarrean dauden curriculumak.

• Programazioan proposatutako irakaskuntza, etapa eta ikasturterako nahitaezkoak diren curriculum-elementu guztiak sartzea.

• Deialdian ezarritako formazko eta edukizko betekizunak osorik betetzea. Deialdian adierazitako luzapen-, formatu- eta aurkezpen-baldintzak errespetatzea.

– Aurkezpena: komunikazio-konpetentzia eta konpetentzia didaktikoa:

• Idazketa eta ahozko aurkezpen argia, ordenatua eta arina. Defentsaren antolamendu egituratua.

• Zuzentasuna eta zehaztasuna hiztegi eta terminologia profesionala erabiltzean.

• Zehaztasuna, laburtzeko gaitasuna eta ezarritako denborara egokitzea.

• Alderdi nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztea, funtsezko atalak azpimarratzea, ondorioak.

– Egitura eta edukia:

• Sarrera, lege-justifikazioarekin eta testuinguruan kokatuta.

• Hezkuntza- eta curriculum-araudian agertzen diren programazio didaktikoaren elementu guztiak garatzea (6.1.2 oinarria). Programazioaren elementuen arteko koherentzia.

• Teknikoki ondo formulatutako ikaskuntza-helburuak, koherenteak, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean indarrean dagoen curriculum ofizialaren helburu orokorrak zehazten dituztenak, eta dagokion mailara, ikasleen ezaugarrietara eta garapen-mailara egokituta daudenak, baita planteatzen den irakaskuntza-testuinguru zehatzera ere, irteera-profila eta/edo profil profesionala eta curriculum-esparruan ezarritako konpetentzia-mailak kontuan hartuta.

• Oinarrizko jakintzen hautaketa eta edukien sekuentziazioa proposatutako helburuetara eta irakaskuntza-testuinguru zehatzera egokitu behar dira, eta irizpide epistemologikoei eta funtzionalei erantzun behar diete.

• Curriculum-proiektuak kasuan kasuko etapa, espezialitate eta mailarako ezartzen dituen funtsezko konpetentziak eta konpetentzia espezifikoak eskuratzen laguntzea.

• Metodologia: Ikuspegi didaktikoa edo didaktikoak zehazten dira. Printzipio pedagogikoak, estrategiak, teknikak, metodoak eta abar zehazten dira. Dagokion ikastarora egokitzen da eta egokia da. IKTen potentzialtasun didaktikoak erabiltzea. Gaitasunen garapena sustatzen du. Diziplinartekotasuna. Ikaskuntza-egoerak, erronkak eta proiektuak proposatzea.

• Planteatutako helburuekin eta ezarritako metodologiarekin bat datozen irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak proposatzea. Handitzeko eta indartzeko jarduerak. Estrategia kognitibo desberdinak eskatzen dituzten jardueren aniztasuna. Ikasteko estiloen aniztasunera eta ikasleen behar eta ezaugarri desberdinetara bideratutako jarduerak. Taldeko eta sareko lan autonomo eta kooperatiboaren alde egitea. Digitalizazioa.

• Ebaluazio-irizpideak, adierazleak, deskribatzaileak eta ikasleen bilakaera- eta hezkuntza-mailara, konpetentzia-mailara eta ezaugarrietara egokitutako kalifikazio-irizpideak: egokitzapen legala eta didaktikoa. Ikasleen aniztasunari erantzuten diote, inklusibitatetik abiatuta.

• Gaitasunak etengabe ebaluatzeko eta ikasleen jarraipena egiteko prozesuak eta tresnak, ebaluazioaren prestakuntza-funtzioarekin bat datozenak. Indartzeko eta sakontzeko mekanismoak aurreikusten dituzte.

• Denboralizazioa, sekuentziazioa eta mailaketa.

– Aniztasunarekiko arreta eta hezkidetza:

• Ikasleen aniztasunari erantzuteko proposamenak zehaztea eta egokitzea, inklusibitatearen printzipioaren arabera. Banakako planak. Hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleei arreta emateko estrategiak, hezkuntza-premia bereziak eta gaitasun handiak dituzten ikasleak barne. Indartzeko eta sakontzeko planak, curriculum-egokitzapenak...

• Hezkidetzako helburuak, estrategiak eta teknikak integratzea. Genero-ikuspegia eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako ikuspegia...

– Proposamenen originaltasuna. Sormena.

– Ahozko eta idatzizko komunikazio-gaitasuna. Komunikazio-egoerara egokitutako hizkuntza-erregistroa. Zuzentasun gramatikala, sintaktikoa, ortografikoa eta diskurtsiboa (dagokionaren arabera).

UNITATE DIDAKTIKOA EDO IKASKUNTZA-EGOERA.

Unitate didaktikoa edo ikaskuntza-egoera baloratzeko, honako hauek hartuko dira kontuan, dagokionaren arabera:

– Deialdiko betekizunetara egokitzea (6.1.2 eta 6.1.3 oinarriak):

• Izangai bakoitzak aurkeztutako programazioarekin lotua edo espezialitateko gai-zerrenda ofizialetik abiatuta prestatua; hori bakoitzak aukeratu behar du.

• Irakaskuntza, etapa eta hezkuntza-mailetako baterako diseinatua, zeinean irakasleen kidegoko eta lortu nahi den espezialitateko irakasleek irakaskuntza-eskumena esleitua duten.

• Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean indarrean dauden curriculumak.

• Unitate didaktikoan edo ikaskuntza-egoeran proposatutako irakaskuntza, etapa eta ikasturterako nahitaezkoak diren curriculum-elementu guztiak sartzea.

• Deialdian ezarritako formazko eta edukizko betekizunak osorik betetzea.

– Aurkezpena: komunikazio-konpetentzia eta konpetentzia didaktikoa:

• Idazketa eta ahozko aurkezpen argia, ordenatua eta arina. Azalpenaren antolamendu egituratua. Erregistroa komunikazio-egoerara eta diskurtsoaren helburura egokitzea.

• Zuzentasuna eta zehaztasuna hiztegi eta terminologia profesionala erabiltzean. Hizkuntza-erregistro egokia. Zuzentasun gramatikala, sintaktikoa, lexikoa, semantikoa eta diskurtsiboa.

• Zehaztasuna, laburtzeko gaitasuna eta ezarritako denborara egokitzea.

• Alderdi nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztea, funtsezko atalak azpimarratzea, ondorioak.

– Unitate didaktikoaren ezaugarriak, egitura eta edukia:

• Unitate didaktikoak edo ikaskuntza-egoerak koherentea izan behar du aurkeztutako programazioarekin, eskabideak aurkezteko epea amaitzean indarrean dagoen curriculum ofizialean ezarritakoarekin, kokatuta dagoen ikastetxearen proiektuekin eta gaitasunen garapenean oinarritutako hezkuntzaren ikuspegiarekin.

• Etapa, maila, ikastetxe eta talde zehatzetara egokitzea. Unitate didaktikoa edo ikaskuntza-egoera proposatutako ikasleen errealitatearen eta ezaugarrien testuinguruan kokatzen du. Irakaskuntzen ezaugarri espezifikoei eta ikasleen premia kolektibo eta indibidualei erantzuten die.

• Araudian unitate didaktikoaren edo ikaskuntza-egoeraren osagai gisa agertzen diren elementu guztiak garatzea. Horiek guztiak koherenteak dira.

• Helburuek eta ebaluazio-irizpideek unitate didaktikoa edo ikaskuntza-egoera garatzeko ezarritako denboran lortu beharreko ikaskuntzak adierazten dituzte, honako hauei dagokienez: konpetentzia giltzarriak eta espezifikoak, lorpen-mailak, deskribatzaile operatiboak eta konpetentzia profesionaleko unitateak, dagokionaren arabera.

• Dagokion ikasturtera, ikasleen ezaugarrietara, garapen ebolutibo eta akademikora eta irakaskuntza-testuinguru zehatzera egokitutako ikaskuntza-helburuak. Teknikoki ondo formulatuta. Koherenteak izatea programazioan jasotakoekin eta unitate didaktikoaren edo ikaskuntza-egoeraren gainerako elementuekin. Indarrean dagoen curriculum ofizialaren helburuak eta etapako gaitasunak eskuratzeko egiten duten ekarpena zehazten dituzte. Neurgarriak dira, eta haien lorpen-maila ebaluazio-irizpideen, adierazleen eta formulatutako deskribatzaileen bidez egiazta daiteke.

• Deskribatutako helburuekin, metodologiarekin, proposatutako irakatsi eta ikasteko jarduerekin, ebaluazio-prozedura eta -irizpideekin, adierazleekin eta deskribatzaileekin bat datozen oinarrizko edo beharrezko jakintza gisa formulatutako edukiak hautatzea.

• Irizpide epistemologiko eta funtzionalei erantzuten diete. Testuinguru zehatzera egokituak.

• Ikasgelaren edo beste ikaskuntza-espazio baten metodologia eta antolaketa: ikuspegi didaktikoa edo didaktikoak zehazten dira. Estrategiak, teknikak edo metodoak zehazten dira. Dagokion ikastarora egokitzen da eta egokia da. Gaitasun giltzarriak eta espezifikoak eskuratzeko egiten den ekarpena zehazten da. Hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleei arreta emateko estrategiak zehazten dira. IKTen ahalmen didaktikoak eta digitalizazioa erabiltzea irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan. Diziplinartekotasuna. Zeharkakotasuna. DUA.

• Unitate didaktikoa edo ikaskuntza-egoera garatzeko baliabide didaktiko egokiak. Ikasteko estiloen aniztasunera egokituak.

• Irakaskuntza- eta ikaskuntza-jardueren proposamen errealista eta koherentea, egoera errealera, curriculum ofizialera eta eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean indarrean dauden printzipio metodologikoetara egokituak. Ikaskuntza-egoerak, erronkak, proiektuak, eremuen araberako lana... sartzea. Ikaskuntzak eskuratzea, orokortzea eta transferitzea errazten duen sekuentzia baten arabera antolatutako eta egituratutako jarduerak. Sekuentziazioa eta graduazioa. Planteatutako helburuekin eta proposatutako metodologiarekin bat datozen jarduerak, gaitasunen garapena sustatzen dutenak, berdinen arteko interakzioa, jarduera autonomoa, lan kooperatiboa eta ikasten ikasteko gaitasuna bultzatzen dutenak, aniztasunarekiko arreta kontuan hartzen dutenak, tenporalizazio egokia erakusten dutenak eta baliabideen eta iturrien aniztasuna aurreikusten dutenak.

• Askotarikoak eta motibatzaileak, ondo sekuentziatuak eta arlo, gai edo modulu bakoitzean erabili ohi den material didaktikoaren erabilera kontuan hartzen dutenak. Autonomia eta autorregulazioa sustatzea.

• Ikasleak ebaluatzeko eta kalifikatzeko prozedurak, jarduerak eta tresnak, baita errekuperatzeko, indartzeko, sakontzeko eta zabaltzeko jarduerak ere. Autoebaluazio-jarduerak. Pareen arteko ebaluazioa.

• Ebaluazio-irizpideak, lorpen-mailaren adierazleak, deskriptore operatiboak eta mailari egokitutako kalifikazio-irizpideak, -prozedurak eta -tresnak: lege-egokitzapena eta egokitzapen didaktikoa. Ikasleen aniztasunarekin bat datozenak. Honako hauek hartzen dituzte barnean: exo-ebaluazioa, autoebaluazioa eta koebaluazioa.

• Etengabeko ebaluaziorako eta ikasleen jarraipenerako prozesuak eta tresnak, ebaluazioaren prestakuntza-funtzioarekin bat datozenak. Berreskuratzeko, sakontzeko, autorregulatzeko eta ikasteko autonomia sustatzeko mekanismoak hartzen dituzte kontuan.

• Ikasleen ikaskuntza, irakaskuntza-praktika bera eta irakatsi eta ikasteko prozesuen eta jardueren eraginkortasuna (programazio didaktikoa bera barne) ebaluatzeko prozeduren, irizpideen eta adierazleen errealismoa, zehaztasuna eta egokitzapen praktikoa.

• Familiak eta eskola-komunitateko beste kide batzuk irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan inplikatzea sustatzeko proposamenak.

– Aniztasunarekiko arreta eta hezkidetza:

• Ikasleen aniztasunari erantzuteko proposamenak zehaztea eta egokitzea, inklusibitatearen printzipioaren arabera. Hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleei arreta emateko estrategiak zehazten dira, hezkuntza-premia bereziak, euskal hezkuntza-sisteman berandu sartzekoak eta gaitasun handiak dituztenak barne. Indartzeko eta sakontzeko planak.

• Hezkidetzako helburuak eta teknikak integratzea eta genero-berdintasuna sustatzea.

EPAIMAHAIAREKIKO EZTABAIDA.

– Epaimahaiak egindako galderei emandako erantzunen kaudimena, zorroztasun zientifikoa, arrazoiketa, justifikazio akademikoa, zuzentasuna eta zehaztasuna.

– Unitate didaktikoaren edo ikaskuntza-egoeraren ahozko aurkezpenean, aurkeztutako programazio didaktikoaren defentsan edo egindako ariketa praktikoan azaldutakoak osatzen edo zabaltzen dituzten argudioak ematen dira.

– Gaitasun pedagogikoa. Irakaskuntzan jarduteko beharrezkoak diren teknikak menderatzea. Arreta berezia jarriko da esparru metodologikoan eta ikasgelako dinamikan.

– Segurtasuna eta heldutasun pedagogikoa adierazten ditu egiten dituen proposamenetan.

– Gogoeta autonomoa, norberak egindako lana eta norberaren ekarpenak erakusten ditu.

– Ezbeharren aurreko erresilientzia, aldaketara egokitzeko gaitasuna (testuinguru berriak, egoerak, eskakizunak...), ekimena, erabakiak hartzeko gaitasuna, proaktibitatea, enpatia (ikasleekin, familiekin, ikastetxeko langileekin, beste eragile batzuekin...), hezkuntza-funtzioaren kontzientzia soziala.

– Bere akatsak onartzen ditu, kritika konstruktiboa onartzen du. Etengabeko prestakuntzara eta etengabeko hobekuntzara irekitzea.

– Talde-lanean eta sarean lan egiteko aldez aurreko jarrera izatea.

– Ikastetxeko programen eta proiektuen antolaketan, funtzionamenduan eta garapenean parte hartzea, inplikatzea eta konpromisoa hartzea.

– Komunikatzeko gaitasuna: jariotasuna, koherentzia, ordena, zuzentasuna, zehaztasuna, egoerara egokitutako hizkuntza-erregistroa, elokuentzia...